

berria

2004ko OTSAILA,
119. ZENB. DOHAINIK

hitza

Urola-kostakuko
Eskualde osoan banatua ▶ 28.000 ale | Larunbata ▶ 2004-01-17 ▶ 0 zenbakia

dank
jotze
Juan A
Eskola
talde
**Urteroko txakolin fest
handia gaur, Getaria**

**Otsailaren 20an
lehenengoa**

hasiko dira dastatzen
zte; «itxura onekoa» de

AZKOITIA ▶

H HITZA zuena da

Heldu da azkenean. Hainbeste itxaron eta gero, hemen da UROLA-KOSTAKO HITZA. Otsailaren 20an aterako da lehenengo zenbakia, eta hortik aurrera egunero, asteartetik igandera. Ba al da gehiago eskatzerik? Egunero-egunero, bailarako herrietako informazioa, eta euskaraz. UROLA-KOSTAKO HITZARI buruzko beste hainbat datu ezagutze-



ko Baleikeko *ze berri* irakur dezakezu.

Aldizkariarekin segita, *jardunian* Joseba Ossarekin aritu gara. Abenduan aurkeztu zen Su -etena- ren aldeko ekimena zer den azalduko digu, besteak beste. Ez da alferrik sortzaileetako bat.

Ur haunditan Oikia aldera joan



gara. Jakina da hitzetik hortzera dabilela azkenaldian hegaztien gripea. Oilaskoekin lana nola egiten duten ezagutu nahi?

Kiroletan ere bada zer kontatua. Ez al zara konturatu azkenaldian jende mordoa dabilela korrika? Hor ari dira denak jo eta su, *izerdi patsetan* Zumaiaiko 20. Lasterketa Herrikoia prestatzen.

Korrika apustua eginda, ez da aukera txarra liburu bat irakurtzea edo zinera joatea. Guk biak emango dizkizugu, ipuin dotore bat eta zine

forumeko pelikula bat.

Hauxe hitz gutxitan otsaileko Baleike. Gozatu!! Motiboak baditugu. Euskarazko prentsa beste aurrerapauso bat ematera doa gure herrian eta gure bailaran.

HITZA ZUENA
DA.



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Belen
Golmaio, Ixiar eta Estitxu
Eizagirre, Karmelo Arroiabere,
Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon
Aizpurua
Izaga Garzia,
Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa
Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa
Baleike

Publizitatea
943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza
Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale
Lege gordailua
SS-405/94
ISSN
1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

BAKERAKO BIDEAK

URTARRILEKO Baleike--n Joseba Ossak su--etenari buruzko idatzia zekarren, eta hura hartu nahiko nuke hizpide.

Lehenik eta behin, harritu egin ninduen Josebak su--etenaren gaia Baleike-ra ekarri izanak. Nori eta etakideei zuzenduta; non eta Zumaia herrialdizkarian; noiz eta Estatuaren indarkeria inoiz baino lotsagabeagoa eta agerikoagoa denean; noiz eta elkarriketa bera ere ukatzen denean (galde diezaiotela, bestela, Carod--Rovirari).

Harritu ninduen, halaber, zeinen erraz (errazegi) hartzen zuen hitza Josebak besteen izenean, zeinen erraz jartzen zuen bere pentsamendua besteen ahoetan: euskal herritarrok, eus-

kaltzaleok, abertzaleok, ezkertiarrok, Ezker Abertzaleak, militanteek, senideek... Guztien izenean hitz egiten zuen Josebak. Mesedez, utzi besteei beraien ahoetatik hitz egiten, eta entzun. Entzun, bai, eta azalduko dute bakearen beharra, hau konpondu beharra, sufrimendua, errepresioa, kriminalizazioa, eskubideen zampaketa eta urraketa, tortura...

Azkenik, mindu egin ninduten bere azkeneko hitzek, etakideei zuzenduek: "Kartzelako zulo beltzetan usteltzen edo bide bazterrean hilda uztea nahi ez baduzue, eten sua, sua eten". Mindu, ez bainuen espero horrelakorik Josebarengandik, eta Moncloako furher txikiak, euskaraz jakinez gero,

ez lukeelako hitz egokiagorik aurkituko. Zoritxarrez, Espainiako eta Frantziako kartzelako zulo beltzetan euskaldun asko daude aspalditik, eta bide bazterrean lagun asko geratu dira, baita dispertsioaren eraginez ere: astea joan eta astea etorri, bi zumaia preso-ren senideek eta lagunek (uzten diete-nean!) 800 kilometro baino gehiagoko bidaia egin behar izaten dute, Espainian barna...

Zerbait egin beharra dago. Bakea nahi dugu, bakea merezi dugu. Egin diezaiogun bidea elkarriketari, inor baztertu gabe. Aurrez inori ezer eskatu gabe, edo aurrez guztiei zerbait eskatuz, baina egin diezaiogun bidea elkarriketari.

Imanol Azkue

ESKATZEN HASITA...

BALEIKEREN AZKEN alean, gutun bat bidaltzen zion ETari Joseba Ossak, su-etena eskatuz. Proposamen politiko ugari plazaratu den unean hauetan, ETari "fitxa" mugitzea dagokiola zioen Josebak.

Helbiderik gabeko gutuna izan arren -ETaren azken bi komunikatuak ikusita- eskaera leku zuzenera heldu dela dirudi. Izan ere, "fitxa" mugitzeko prest azaldu da erakunde armatua, alderdi abertzaleak autodeterminazioa eta elkarriketaren aldeko mugimenduak egiteko prest agertzen badira.

Badago, egon, mugitze premia Herri honetan. Eta ez alderdi abertzaleen

aldetik bakarrik. Abertzale espainiar alderdien postura aldaketak ere gustura hartuko nituzke nik. Gustura hartu dudana bezala Carod-Rovira ETarekin elkarriketatu izana.

Baina nahiak nahi, kontua da hemen ez dela inor mugitzen. Besteen mugimenduen zain, berean mantentzen dira/gara guztiak, besteei leporatuz aurrera egin ezina.

Egoera geldi hori harrotzeko, badaude presio mota ezberdinak erabiliz (su-etena eskatuz, desagertzea exijituz, presoak sakabanatuz, ezker abertzalea ilegalizatuz...), ETA behartu behar dela pentsatzen dutenak. Egon bagau-

den bezala, ETari su-etena ez exijitze-agatik ilegalizazioa jasan arren, zera pentsatzen dugunok: egokiagoa dela mugimendua beste hainbat eragile politikori eskatzea.

Azkenean, ez dakit nik batzuek eta besteek harrotzen ditugun haizeek ez ote gaituzten hasierako puntura eramaten. Alegia, guztiok geldirik egotera, besteei mugimenduak eskatuz.

Hori dela eta, eskatzen hasita, orain eta hemen, hauxe nire eskaera: behin-goz mugi daitezela guztiak! Berandu baino lehen, mugi gaitezen guztiok!

Migel Aperribai



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

"Hamahiru urte nituelarik, oraindik galtzamotxetan"

Urte berria hasi dugu, eta konturatzeke joan zaigu lehen hilabetea. Eta horrela doa gure bizitza, azkar, eta zein neurritan guk nahi dugun bezala?

Egun gutxi direla, Karidadeko Benta taldearen kontzertuan abesti baten aurkezpena barru-barrura iritsi zitzaidan: bizitzan egiten diren aukerei buruz, edo haiek, aukera horiek egitean, alde batera utzi ditugun besteei buruz, alegia.

Ikasi genitzakeen arkeologia ikasketak, Australian pasa behar genuen urtebetea, inoiz laztanik ere utzi gabe gure bizitzako atajo batetik ihes egiten utzi genuen balizko maitea. Baina inoiz hartzen al dugu benetan tarte bat, baztertu genuen aukera hori hautatuz gero gure bizitza nola joan izan zitekeen pentsatzeko?

Badago pelikula bat "Sliding doors" izenekoa, eta bertan neska baten bizitza une batean, aukera bat dela-eta bikoiztu egiten da; pelikula bukatu arte bi bizitza ezberdinak ikus ditzakezu, eta bukaeran dena bat egiten da, halamoduz.

Ba guk ezin dugu etorkizun birtual menu batean aukeratu, eta

gainera bene-benetan, konturatzeko al gara egiten ditugun aukerak, AUKERAK direnaz? Bizitza bizi dugu eta eraikitzen dugu, edo gertatu egiten

zaigu?

Patuan sinesten dutenek, jaiotzatik gure bizitza zertan izango den idatzita dagoela diote; ez zer egin behar dugun, zer gertatuko zaigun baizik.

Ez dut honekin ikuspuntu fatalista bat eman nahi, aurkakoa! Benetan sinestu behar dugu egin dugun aukera onena dela; hala idatzita baitago (jo, ez nuke honekin egoskorkeriaren apologia bat egin nahi, ulertzen duzue, ez?).

Ez ahaztu hamahiru urteko mutilak kortejatzen zuen nexkaren kantua nola bukatzen den "oo ez, orain ia ez, oheratzeko zahartu naiz".

Aukerak aukera, ahal den neurrian eutsi olatuari, eta gure gogoaren baitan, gorde txoko bat bizitzaren zurrumbiloan bazterturik gelditu zaizkigun zabaldu gabeko egunsentiei.

Dena den, izaera praktikoari eutsiaz, aholku bat: donutsak eskaintzen badizkizute, bi hartu, eta etorkizun biribil-biribil bat izango duzue.



Miriam Romatet



Basadi Auzategia, 10 beheha
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ZUMAIA BIRA 50 URTE

Andoni Ormazuri

URTEAK EZ dira alferrik pasatzen eta, konturatzerako, mordoska bat joan direla ikusten dugu. Denborak aurrera egin ahala hor hasten gara adinean sartutakook aspaldiko kontuak gogoratzen...

Oraingoan dakardana ere denboran urrutiko kontua da eta ingurua eta arrazoiak ere asko aldatu dira, baina uste dut ez datorrela batera gaizki horrelakoak gogoratzea gauzekiko eta garaiekiko ikuspegia gordetzeko. Zumaia Bira-ri buruz ari naiz, aurtengo udaberrian beteko dira-eta 50 urte lehenbiziko "Vuelta a Zumaia" antolatu zela. 60 urtetik gorakook gogoratuko zarete, seguru, egun hartaz; egun pasa ederra izan zen: Oikian festa eta bazkaria, San Migelen merienda eta etxera. 50 urte pasa dira baina, garaia kontuan hartuta, horrelako ospakizunak eta ekintzak ez ziren berehalakoa ahazten, ez horixe.

Hala ere, han izan zineten askok ere jakingo ez duzuen da nondik eta nola sortu zen ideia.

Orduan bazen Zumaian Mendizale Talde bat OARGI Beti Gazte izenekoa eta, garai hartan aukerak asko ez zirenez, jende asko biltzen zen aste buka-



erako mendi bueltarako. Inguruko mendi eta bailaratan ibiltzeko ohitura handia genuen eta, horrela, Andika eta San Martin baserritik Elorriaga

bailara bitartean ur garbia ateratzen zela ikusi genuen, Oizto deitzen den parajea, hain zuzen ere; Oiztoko urari indarra eman nahian bertan iturri bat eraikitzea pentsatu genuen. Behar ziren baimen eta laguntzak lortuta, Luis Azkue igeltsero zela bukatu zen iturria.

Iturriak ere bere inaugurazioa ere behar eta, garaiko erlijio ospakizunak kontuan hartuta, Aste Santua baino lehenago egitea komeni zela ikusi genuen, festarik egin nahi bazen behintzat. Mendizale elkarte izanda ospakizunak mendi buelta eskatzen zuen eta iturria Zumaia-ri gertuegi dagoenez, egunari berea emateko luzatzea pentsatu genuen eta honela sortu zen Zumaia Bira.

Orain, 50 urteko pasa direnean Oiztoko iturria eraiki zenetik, hor daukagu "Zumaia Bira" urtero-urtero berean zintzo; Oiztoko iturria, ordea... pinuz eta sasiz inguraturik eta bere depositoa, berriz, lokatzez beterik. Batzuetan denborak ez du barkatzen.

IZAERAK ETA PORTAERAK

F.U. Eizagirre

JAKIN ALDIZKARIAREN azken zenbakian bukatu berri den 2003. urteko gertaeren inguruko erreflexioa egiten dute hainbat idazlek; horien artean Andolin Eguzkitzak. Bi aipamen egiten ditu berak, eta bigarrena aukeratu dut baleikezaleei azaltzeko (barkatu irakurria duzuenok).

Ratzinger kardinalak, Erromako Fedearen Dikasterioko dokumentuan, homosexualen eskubideen kontra esandakoaren ingurukoa da idazlana. Aipaturiko dokumentuan, besteak beste, hau omen dio:

"Elizak irakasten du, pertsona homosexualekiko errespetuak ezin dezakeela inor ezelan ere portaera

homosexuala ontzat jotzera behartu, ez eta bikote homosexualen onarpen legaletara bultzatzen".

Eta harritzen da Eguzkitza, kardinal alemanak eta enparauek oraindik ez dutelako ulertu homosexual izatea ez dela portaera bat edo aukera bat, izaera bat baizik. Ondorio bezala, berriz, zera dio: bikote homosexualen errealtateak ez duela inoiz arriskuan jarri giza naturaren iraupena.

Iritzi testuaren harira gehitu nahi nuke: bikote batzuen adierazpenak onartzen badira, zergatik ez besteenak? Eta berdin legeztatzearekin; batzuen harremanak legeztadaitezke, zergatik ez besteenak? Zergak ber-

din ordaintzen ez dituzte, ba? Gainera, ea eskerrak eman beharrean gauden, gehiegizko birsortzea dela eta homosexualen harremanetatik populazioa handitzen ez delako!

Azken ordukoak: Donostiako sansebastianetan, beste batzuen artean, Gehituko ordezkariak hiritar merezimendua jaso du alkatearen eskutik, eta J.J. Imazek kargu hartzearen diskurtsoan gay eta lesbianen aldeko hitzak izan ditu.

Izan bitez, biak ere, normalkuntzarako urratsak.

(Bushen urtarileko diskurtsoko hitzak, berriz, aintzakotzat ez hartuta hobe!)

EBPN... EBNP... EBNP...

–Zer da baina EBNP delako hori?– galdetu zuen batek, eta lagunak jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia dela esan zion eta bide batez plan horren helburua euskararen normalizazioa lortzea zela gehitu zuen.

–Eta zergatik dira sigla horiek horren ospetsuak?– galdetu zuen berriro aurrengoak eta lagunak azaldu zion beste herri batzuetan bezala Zumaian ere udala plan horretan parte hartzeko aurreneko urratsak egiten ari dela eta beraz, oraindik sigla horiek ez direla batere ospetsuak gutxi barru hartuko duten sonarekin konparatuta. Orduan lagunaren jaikin minaz ohartuta, parte-hartze hori zertan den jarraitu zuen azaltzen: hamar herritarrez osatutako Aholku Batzordearen osaketa eta bigarren euskara teknikariaren kontratazioa martxan direla, hala nola planaren berri emateko asmoz "Zumaiak du hitza" izeneko bi hiru-orriko herri-tarren artean banatzekoak direla ere.

–Baina eskolan aspalditik erakusten da euskaraz eta aspaldikoak ere badira ETB, Euskadi Irratia etab. Oraindik diru gehiago gastatu behar da euskararen kontu horrekin?– Jarraitu zuen galdegileak, oraingoan moles-tatu samarra eta erantzunak aditu ez dituenaren jarrera hartuz –Ez ote litzateke hobea erdaraz egiten diren kultur ekintza guz-tiak debekatzea?– gero eta beroago –Hainbeste urtetan hemen bizita oraindik euskara ikasi ez dutenei hemengo hiritartasuna kentzea?– begiak dir-dir –Erdara hutsez ari diren enpresei zergak bikoiztuta ordainaraztea?– gorri-gorri eginda lerdea zeriola –Eta eskolan euskaraz ikasita, hoxei urtetik beherakoei erdaraz egitera-koan mingaina moztea?– Aplakatu zenean, ordea, oraindik beste galdera bat era bazuela otu zitzaion –Aizu, eta zer esan nahi da normalizazioa aipatzen denean? Gu ez gara normalak, ala?–



Josefran Ispizua

"ZUMAIKO INSTITUTUA EUROPAR HEZKUNTZA PROIEKTUETAN BURU BELARRI"

M Luisa, Antton eta Patri

Zumaiako Institutua, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntzarekin, Danimarkako "Horsens Handelskole" merkataritza eskolarekin proiektu bat antolatzen ari da. Batxilergoko lehen kurtso talde batek -19 ikasle eta 2 irakasle- hartuko du parte, eta bertan Danimarka eta Euskal Herriko hainbat atal aztertuko dituzte. Beste ikasturteetan egin den bezala (Irlanda eta Alemaniako ikastetxeekin) orain ere ikasleen elkartrukean oinarrituko da proiektua. Elkarlana taldean burutuko da, eta ingelesa izango da esperientzia zehar erabiliko den hizkuntza, bai Danimarkan eta bai



Zumaian. Zumaiarren bisita Danimarkara martxoaren bukaeran izango da eta daniarra irailean edo urrian.

Bestalde, Europar Leonardo proiektuaren bitartez, Institutuko Adminis-traritzak zikloko 4 ikasle ohi lan prakti-

kak egiten ari dira Irlandako Carlow herrian, urtariletik apirilera. Azken bi ikasturteetan lan praktika hauek Ingalaterran egin dituzte Institutuko ikasle-ek, eta aurten Irlanda izan da aukera-tua. Bertara joango dira ere aurtengo Administrazioa eta Finantzak Goi Zikloko 10 ikasle, lau astebeteko lan-praktikak egitera martxoan zehar. Proiektu hauek aukera paregabeak dira herriko ikasleentzat atzerriko bizitza eta lan mundua ezagutzeko, ingelesa praktikatzeko duten bitartean. Espe-rientzia hauen guztien berri emango dugu aurrerantzean."

Agur bero bat

elektrizitatea, s.l.

Erriberakalea 18 Behe Tlf/fax: 943 143097
20.750 Zumaiakalea ekin@ekin.es

Istalatzaile/banatzale ofiziala

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK

edergintza

Amaiako Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Merkealdia



Gorka Ormazuri

Merkealdia pasa berri da eta gure urteroko gose aseezina diruaren truk eman dugu inoiz erabiliko dugun ez dakigun arropa erosiz. Gogorra da gero arroparen epea bere zahartzea ez izatea; badirudi, epea modak

jartzen duela, diseinu eta koloreek. Lau urteko jertsea zaharra omen, bi urteko zapatilek ez omen dute egungo estilorik, boltoak aurten txikiagoak direla ... non ote hasiera-hasierako luma ala ilea aukera garbia? Behin aukeratuta betiko kontua zen, gainera, aldaketa handiegirik gertatzen ez bazen behintzat. Aukera sinpleagoa izanagatik ez zen, ordea, pobreagoa. Nago pulamentuzko erabakietarako denbora handiagoa eta luzeagoa eskaintzen zigula.

Luma ala ilea, ilea ala luma; gure aukera ilea izan zen, bai, eta damutu ote garen beldur naiz. Ez, ez naiz "lumazaleei" buruz ari, hauek ere gero eta gehiago badira ere(agerian behintzat), damua ikusten dudala diot ilea ezabatzeko dugun grina dela eta. Burukoa ezik, gainontzekoa kendu nahian pasatzen dugu bizitza eta gizonezkook ere gero eta gehiago.

Ilearen merkealdia ote bizi duguna? Kentzea ez da ba merke ateratzen, demonio!

Jauja

Karmelo Arroiabe



"Compre una manta y le regalamos otra igual, GUERRA, Loyola 10 San Sebastian". Irratian entzuten genuen iragarki hau duela 45 urte inguru. Liluratuta gelditzen nintzen entzute bakoitzean. Izan ere nola zitekeen bat erosi eta bi eraman. "Kriston txollua". Geroxeago ohartu nintzen iragarkiak ezkutuan zermanaz; compre eta pague ez zirela esanahi berdinekoak, bat erosi baina bi ordaintzen zirela, alegia. Ordutik gaurdaino salerosketa munduan ez dira gauzak askotxo aldatu. Estilo eta adierazpenak aldatu badira ere muinak berean jarraitzen du. Lehen salgaia bikoizten bazen, orain berriz, haren prezioa erdira jeisten da. Oraingo txollua merkealdia da. Gure zoramenerako, urtean pare bat hilabetez edo, erdi prezioan eros ditzakegu arropak. Urteko beste hamar hilabetetako "garestialdiaz" ez dugu gogoratu nahi. Zein prezioaren erdia ordaintzen dugu? Salerosketa harremanak horrela jarraitzezkotan, dendariei ere ez zaio panorama ederra gelditzen; merkealdia urte osora luzatu (eta honek sinesgarritasun gutxi izango luke) edo merkealdietan bakarrik zabaldu dendak (hau ere ezinezko irtenbidea). Beharbada, eta ez ginateke aurrenak izango, kale kantoietan erabiltzen den estilorantz goaz, tratua ere alegia, "merke merke Joshe Mari".

Mertxandaisiña

Xa2x1



Iritsi da errematea. Ormazuri eta Arroiabe, guztiaren oinarrian, arazoaren muinean, beti bera dago: mertxandaisiña. Horrela esaten baldin bada, politago geratzen omen da-ta, ttak! artxibora hitz berria. Nahi ez badugu ere, merkatu erraldoi batean bizi gara, eta dena saldu eta erosi egiten da. Hortik, promozioarena, batzuk gehiago saldu eta besteok gehiago erosteko asmatu teknika. Karmeloren "dosporuno" horretatik abiatu, eta aurrekoaren beherapenetatik pasatuz, nahi beste adibide jar genitzake. Baina, "gero eta gehiago" sistematiko batean sartuta gaudenez, nora iritsiko ote gara? Produktuak saltzeaz gain, promozioak baloreak ere saltzen (sartzen!) baitizkigu; eta gustuak; eta esterotipoak... etxetik irten eta ez dago egunik, iragarki, kartel edo eskaparateren bati erreparatzen ez

diogunik. Baina lasai, etxe barruan geldituta ere, irrati-telebista-internet trinidad eak bozgorailuak beti martxan ditu-eta. Orduan, dena aurrez pentsatua baldin bagara, zer arraio egin benetan gure gua bilatzeko.

Boteprontoan otu zait, kontra-mertxandaising bat egiten hasi gintezkeela.

Bai, zeurea propioki den ideia, janzkera, edo esamoldea hartu eta egin promozioa. Ezagutzen dut, norberaren seme-alaben argazkiekin egutegia atera duenik ere... hori mertxandaisiña ez baldin bada!! Sistemari aitzakia gutxiago botako dizkiogu, eta propioago izango gara. Hori bai, azterketak bukatu eta beherapenetara joandakoan, jaujarik aurkitzen badut, etxerako; gero lagunei promozionatuko diet, noski, galtza pare berria, neure-neurea izango delako propioki. Mxk!

Zumaiako Udalaren barnean eta San Juan egoitzan euskararen erabilera bermatzeko plana martxan da

Siadecok egindako plana aho betez onartu du Udalak

90eko hamarkadaren lehen erdian euskararen ezagutza ziurtatzeko plana egin zen. Haren jarraipena da urtarri-laren 29ko udal batzan alderdi guztiek onartutakoa. Helburua ezagutzatik erabilerara igarotzea da. Horretarako hainbat proposamen egin ditu Siadecok, aurretik Udalean eta Udalarekin zerikusia duten jardueretan euskararen erabilera nolakoa den aztertuta.

Udalaren barnean bi arlo bereizten dira. Batetik, udalak herritarrekin dituen harremanak daude, eta bestetik, Udalean bertan langileen eta zinegotzien arteko komunikazioa dago. Plan honen bitartez, jende aurrean eta beraien artean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da helburu nagusia. Baita administrazioen arteko harremanetarako hizkuntza euskara izatea ere.

Siadecoren azterketa: kanpo eta barne harremanak, eta hizkuntza paisaia

Udaleko langileen artean euskararen ezagutza eta erabilera zenbatekoa den

aztertu dute. Ahozkoa eta idatzizko harremana hartu dituzte kontuan.

Hizkuntza eskakizunen bitartez neurtu dute ezagutza. 46 lanpostuetatik 36ri dagokie derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Horietatik 24k dute dagokien maila.

Kanpo harremanetan euskararen erabilera altua da. Ia % 93 euskaraz edo bi hizkuntzatan egiten da, eta % 80 euskara hutsean.

Hutsune handienak Udaltzaingoa eta Idazkaritzan daude. Herritarrekin dituzten ahozko eta idatzizko harremanetan euskaren erabilera nahiko eskasa da.

Barne harremanetan, hau da, Udaleko langileen artean, euskararen erabilera oso urria da, % 32koa. Hain maila eskasa izatearen motiboak bi arlotan daude: udaltzaingoen arteko harremanetan, eta zinegotziak biltzen dituzten batzordeetan eta bileretan. Hirigintzan ere gabeziak daude, baita San Juan egoitzan ere.

Kanpoko hizkuntza paisaia seinaleek, errotuluek, katalogoek eta horrelakoek osatzen dute. Barrukoa, berriz, bulegoetako errotuluek,

egutegiekin eta tresneriekin. Biak kontuan hartuta, bi hizkuntzatan ageri direnak ia % 93 dira, eta horietatik erdiak daude euskaraz bakarrik. Hemen ere nabarmentzekoa da, euskarazko errotuluen erabilera baxuena udaltzaingoa izaten dela. Bideetako seinale batzuk gaztelera hutsez daude.

Ezagutza eta erabilera bermatzeko proposamena

Siadecok euskararen ezagutza eta erabilera ziurtatzeko plana ere egin du. Aurreko datu horiek kontuan hartuta egin du proposamena. Bi hitzetan esanda, dagokien hizkuntza eskakizuna ez duten langileek eskakizun hori atera beharko dute. Erabilerari dagokionez, ikastaroak izango dituzte Udaleko langileek.

Hau dena datozen bi urteetan egingea aurreikusten du Siadecoren plana. Udalak aho batez onartu du. Orain lan egin, eta onartutakoa betetzea dagokie, bai zinegotziei, baita langileei ere.

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278



Maite
ileapaindegia

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI HORTZ KLINIKA

Plazola de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 66 16 74
20700 ZUMAI (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Insausti Elgoibar

ert
informatika

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

Hitza pare bat hitzetan

Laster sortuko da Hitza, eta normala da herritarrek galdera asko izatea. Horra batzuk, eta erantzunak (azkenekoan izan ezik...).



Noiz sortuko da HITZA?

Otsailaren 20an irtingo da Hitza-ren 1. zenbakia (Egunkaria-ren itxieraren lehen urteurrenean). Handik aurrera egunero, astelehenetan izan ezik. Zortzi orrialdekoa. Aurkezpen-festa, berriz, bezperan, 19an egingo da, Zarautzen,

20:00etan, Zinema Frontoian. Zumaier guztiak gonbidatuta daude.

Egunero nola banatuko da?

Hitza-ren sortzaileek apustu handia egingo dute egunkariaren banaketan. Jendea oraindik ez dago ohituta kioskora, okindegira edo dena delakora joan eta euskarazko egunkaria hartzen. Hori dela eta, Hitza etxeraino banatuko da, egunero buzoian utziz. Base-rietara eta oso gertu ez dauden auzo txikietara baliteke okinen bidez banatzea; bestela, banaketa izugarri garestitzen da.


lehen egun horietan Hitza-k harpide kanpaina egingo du, eta harpidedun egiteko telefono zenbaki batera deitu beharko da. Dena dela, Baleikeko bazkideek eta harpidedunek ez dute izenik eman beharko, Baleikek egingo dituelako Hitza-ko harpidedun (Hitza-ren enpresako kideetakoa da Baleike). 'h' pegatina jasoko dute, buzoian jartzeko. Horietako batek egunkaria jaso nahi ez badu, dei dezala Baleikera edo mezu bat bidali.

Zer tirada herrian?

Herrian egunero Hitza-ren 900 ale bana daitezke. Kontuan hartu behar da hasieratik bertatik dagoneko 400 harpidedun izango dituela (Baleikeko bazkideak eta harpidedunak). Egunero 900 ale-ekin, bera izango da herrian gehien banatuko den egunkaria; Euskarazko zein komunikabidek lor dezake hori?

Zeinek jasoko du?

Hitza sortu eta aurreneko egun batzuetan zumaier den-denek jasoko dute egunkaria. Baina



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369



Zumaiak zenbat orri?

Normalean, orrialde bat egunero, Getariarekin batera. Urola-Kostako herrien artean hiru orrialde beteko dira (Orio, Aia, Zarautz, Getaria eta Zumaia). Denetik emateko aukera, beraz.

eragileak (%20). Eragile horiek enpresan parte hartzeko, kultur elkarteak sortu da, eta elkarte horretan egoteko eragile bakoitzak, behin, gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du. Lehen harremanen ondoren, Zumaiako Bertso Eskola prest dago; enpresa, sindikatu, talde, elkarte... denek izango dute aukera parte izateko.

(631.000 euroko aurrekontua), aukera bat da uda ostean harpidetza, urtean 285 aldiz euskarazko egunkaria etxean jasotzeagatik, 40 euroko borondatekoa eskatzea.

Eragileek parte, nola?

Hitza-ren enpresak hiru zutabe ditu: euskara elkarteak (%45), Bertako Hedabideak (%35) eta gizarte

Doan izango al da?

Nahi duenak jasoko du. Baina autofinantziazioan gora egiteko

Udalak ondo lagunduko al du diruz...?

ad AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTEGIA



Mota guztietako altzariak eta aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Gari Berasaluze "Inguruko berri geure hizkuntzan jasoko dugu, eta hori oinarritzkoa da"

HITZALDITIK HITZALDIRA dabil Gari Berasaluze zarauztarra, eskualdean Urola-Kostako Hitza egunkaria aurkezten, bera izango baita zuzendaria.

Zergatik sartu zara proiektu honetan? Dudarik gabe, eskualdea euskalduntzeko proiektu giltzarria iruditzen zaidalako. Lehen aldiz izango dugu Urola-Kostako biztanleok gure herrietan sortzen diren albisteei buruzko informazioa prentsan egunero eta gure hizkuntzan jasotzeko aukera. Uste ez badugu ere, horrek, gure eguneroko bizitza eta irakurtzeko ohiturak aldatu egingo ditu, eta ohorea da horrelako lan batean aritzea.

Editore bezala ibili zara azken lau urteetan; orain kazetaritzara jauzia. Alde handia al da? Aurretik, non eta nola aritu izan zara kazetaritzan? Egia esan, lehendik ere zerbait ezagutzen dut kazetaritza mundua. Egin egunkarian Zarauzko kronikagile aritu nintzen hainbat hilabetez, egunkari hura itxi zuten arte. Irratigintzan ere aritu naiz Herri Irratian eta Egin Irratian. Egunkaria-n, berriz, asteburuetako literatura gehigarria kudeatzen nuen, eta gazteen Barkatu Ama gehigarriko Azken Portuko Taberna atalaren ardura izan nuen sasoi batean. Gero,

Txalaparta argitaletxean editore lanean hasi ondoren, zutabegile moduan aritu naiz, Gara-n eta Berria-n. Aldea? Kazetaritza askoz bizkorragoa da, 'eroagoa', baina gustukoa izanez gero kateatu egiten zaitu lanak. Gustura itzuli naiz berriro prentsa idatzira.

"Eskualdea euskalduntzeko proiektu giltzarria iruditzen zait"

Urola-Kostan zergatik behar da bertako euskarazko egunkaria?

Nik behintzat ezin dut imajinatu italiarazko egunkaririk gabeko Italiarik. Zergatik iruditu behar zaigu normala euskarazko egunkaririk gabeko Euskal Herria? Urola-Kostako Hitza-ren bitartez, inguruko berri gure hizkuntzan jasoko dugu, besterik gabe. Baina hain oinarritzkoa dirudien hori ez genuen orain arte.

Uste al duzu Hitza-k ondo funtziona dezakeela eskualdean?

Ez dugu inolako zalantzarik. Biztanleen %76 inguru euskalduna da Urola-Kostan. Gure helburua lortzen badugu —egunero kalitateko egunkari plurala

argitaratzea—, laster lor dezakegu Hitza gure herrietan eta etxeetan erreferente bihurtzea. Egin beharreko lana ondo egitearekin nahikoa dugu: bate-tik, irakurleek nahi dutena eskaintzeko eta, bestetik, irakurle berriak sortzen hasteko.

Egunkaria itxi zutenean, mugimendu handia egon zen eskualdean...

Eta seinale ona da. Nabarmena da eguneroko prentsa euskaraz irakurtzeko gogoia duen eskualdea dela gurea. Horregatik, gogo eta behar horren arabera egituratu eta plazaratuko dugu Urola-Kostako Hitza.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

HITZA BULTZATU BEHAR DELAKO, BALEIKELAKO

AURTENGO EKAINEAN beteko ditu aldizkariak 10 urte. 1994ko negu hartan dagoeneko gazte talde bat ari zen, Zumaiaiko Gazte Batzordearen inguruan, aldizkari bat kaleratzeko proiektua lantzen: gazteen informazioa falta zen, herriko berri txukun izateko aukera oso gutxi zeuden eta euskaraz batere ez. Hutsune eta premia hura ikusita, eta gehienbat Arrasate inguruan sortua zen herri aldizkarien olatuaren indarra aprobetxatuta, Baleike sortu zen, besteak beste euskara eta euskal kultura ere bultzatzea helburu hartuta.

Hasieran hilabetekari, urtebete pasatxoan hamabostekari, 100. zenbakia atera eta gero lau hilabeteko etenarekin... Hainbat gorabehera tartean, baina 10 urte hauetan Baleikek bere funtzioa bete duela uste dugu. Inoiz ez da astekari bihurtzeko bezain indartsu sentitu, eta egunkaria ateratzea hain zaila da!! Hor zegoen Euskaldunon Egunkaria horren froga gisa!

Baleike eta Egunkaria, orain Berria eta Baleike. Aliatu naturalak, ezin zen bestela. Bakoitza bere alorrean garrantzitsu, baina bakoitzak baditu bere hutsuneak: Baleikek ezin die eguneroko berriei erantzun, Berriakoei ezinezkoa zaie herri mailako berriei merezi duten tokia egitea. Horregatik da garrantzitsua



eskualde mailako egunkari bat eskura izatea, herriko berri egunero izatea, euskaraz.

Ez pentsa, ordea, egunkari berria abian jartzearekin batera Baleike desagertuko denik! Oraindik ere baduelako bere tokia, bere funtzioa. Hitzan sartzeko zailak diren elkarrizketa, erreportaje, iritzi, ipuin eta abarrekoak hilean behin zuenganatzen jarraitzekoa asmoa dugu, beraz.

HITZA eta Baleike elkarren osagarri izan daitezkeela uste dugu eta horregatik bultzatu dugu Urola-Kostako egunkari berria. Baleikelako eta behar dugulako.

Baleike kultur elkarte

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330



Baserri Auzotegia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

**OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO
BAIMENAK LORTZEKO**

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoak: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) ZARAUTZ
Telefono zenbakia: 686 954 299



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

"ESPAINIARI EZ" manifestuaren aurkezpena

Martxoko Espainiako hauteskundeetan estatu horri ezezkua emateko dauden arrazoiak biltzen ditu idatziak

Azken 25 urteetan Espainiaren zapalkuntza era batera edo bestera jasan duten zumaiarek egin zuten manifestuaren aurkezpena. Tartean ziren, besteak beste, errepresaliatu politikoak (atxilotuak, torturatuak, preso ohiak, preso politikoen senideak, kuarteletan hil zutenaren senideak, eta kartzelak hil zuenaren senideak); lapurtu nahi duten Inpernupe elkarteko ordezkariak; itxi zuten Egin egunkariko langileak; itxi zuten Egunkariaren irakurle eta laguntzaileak; intsumisioak, ilegalizatutako Batasuneko hautetsiak; eta genero zanpaketa jasaten duten emakumeak.

Espainiari ezetz esateko dauden arrazoiak

Azken urteetan ezker abertzaleak egindako lanari esker, autonomien estatutua kolokan dagoela dio idatziak. Ondoren, hauteskundeetan Espainiari ezetz esateko arrazoiak datoz.

Behin manifestua aurkeztuta, manifestazioa egin zuten herrian zehar.



ESPAINIARI EZETZ ESATEKO ARRAZOIAK

- Historikoki eta gaur egun herri gisa ukatu nahi gaitu.
- Herri gisa dagozkigun eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu.
- Espainiar Konstituzioa Euskal Herriaren aurka sortu zen
- Europa osoan parekotasunik ez duen apartheid egoera inposatu digu.
- Gure hizkuntzak, euskarak, irakaskuntzak eta kulturak mugarik gabeko erasoak pairatzen ditu.
- Adierazpen askatasuna debekua zen zapiak estali du.
- Gure baliabideak (nekazaritza, arrantza, etab) Madril en agindupean inposatu nahi zaigu. Lemoiz, NATO, soldaduska inposatu nahi izan ditu.
- Europan osaketa politiko eta ekonomikoan herri gisa parte hartzeko aukera ukatzen digu.
- Aurrera begira, gatazka luzatu eta sufrimendua areagotzeko eskaintzen digu. Azken 35 urteetan, 5.300 euskal herritar torturatu dituzte; 3.000 erbesteratu ezagutu ditugu; 4.000 pasa dira espetxetik, 30.000 izan dira atxilotuak; eta 318 hildakoak.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.



Beste 89 EHNA gehiago

*Guztira 400 bat zumaiarrek egin
dute euskaldunon nortasun agiria*

Arrakasta handia izan du euskaldunon nortasun agiria eskuratzeko hainbat herritarrek abian jarritako kanpainak. Bi deialdi egin dituzte. Lehenengoan, aurreko Baleiken azaldu genizuen bezala, 300 pertsona izan ziren EHNA egin zutenak. Bigarrenean, 89 izan dira. Lehenengo deialdian egin zutenek, dagoeneko eskuratu dute euskal herriarren nortasun agiria.

Etorkizunean deialdi gehiago egiteko asmoa dutela esan digute ekimenaren antolatzaileek. Oraindik ez dute erabat zehaztu non, noiz eta nola egin, baina egingo dutela ziurtatu digute.



Balentziaga Ontziolak bi atoi-ontzi egiteko lana eskuratu du

*Urtebeterako lana ziurtatuta
daukate*

Urtarrileko Baleiken ELA eta LABeko ordezkariak, Juano eta Abel Yeregik esan ziguten itxaropena bazutela. Nagusiek zerbait bazuten susmoa ere bazeukaten. Azkenean, albiste onak baieztatu egin dira.

Lanik ez zela eta, aurtengo oporrak aurreratu egin zizkien enpresak. Gabonak pasatu ondoren, urtarrilaren 26ra arte oporretan egon dira langileak. Urtarrilaren 26an itzuli ziren lanera. Orduantxe izan zuten albiste onen berri. Esan bezala, bi atoi-ontzi egiteko kontratua eskuratu du enpresak, eta horrekin urtebeterako lana izango dute.

Ez ohiko batzarra otsailaren 21ean izango da

Geretxueta kooperatibako bazkide batzuen eskaerari jarraituz, zozketa egunik gabe atzeratu da

Kontseilu Errektoreak urtarrilaren 14an egindako bileran hainbat erabaki hartu zituen. Bizikidetz-unitateko kide kopuruaren inskripzioan eginiko zuzenketak eta erreklamazioak ikusita, urtarrilaren 31rako iragarrita zegoen zozketa atzeratzea deliberatu zuten. Zehaztu ez zutena zozketa eguna izan zen, egunik gabe atzeratzea erabaki zutelako.

Hartutako beste erabakia haxe izan zen. Bazkideen %20ak baino gehiagok egindako eskaera onartu, eta ez ohiko batzarra egitea. Batzar hori otsailaren 21ean izango da, Aita Mari zine aretoan. Goizeko 10etan lehenengo deialdia izango da, eta 10:30ean bigarrena.

Batzarrean, batez ere, bi gai nagusi eztabaidatuko dituzte. Kontseilu Errektoreak bere garaian proposatutako zozketa-sistema (3 kide baino gehiagoko familiek 3 gelako etheen zozketan lehentsauna izatea) aztertu, eta Batzarrak nahi badu, bozkatu egingo da.

Bigarren gai nagusia Kontseilu Errektoreari dagokiona izango da. Beraiek egindako lana aztertuko da, eta Batzarrak nahi badu kide berrien bozketa egingo da.

San Telmo-txiki berritua bere lekuan

Idoia Idigoras eta Rakel Nacentak eraberritu dute gure santu txikia. Egun batzuk badaramatza bere betiko lekuan. Dotore. Ikusgarri. Gero eta gertuago ditugun santelmoetan paregabeko itxura izango du, Idoiak eta Rakelek egindako lan bikainari esker. Martxoko BALEIKEN izango duzue lan bikain horren berri.

Hurrengoan euskaraz ere bai

Beheko Plaza jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak bazkide guztiei eskutitza bidali zien. Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartean bazkide izateak sortuko dien egoera berria azaldu nahi zien bazkideei. Horra arte ondo. Kontua da, ordea, eskutitz hori gaztelera hutsean idatzita zegoela. Hanka sartze hori ikusita, barkamena eskatzen dute, eta hitza eman hemendik aurrera eskutitzak euskaraz eta gaztelera idatziko dituztela.

JOSEBA OSSA
ITZULTZAILEA

"ETAk armak uztea, besterik gabe, ez litzateke nahikoa izango bakea izateko"

Abenduan aurkeztu zen "Su-etenaren aldeko ekimena". Sortzaileen artean dago Joseba Ossa zumaiarra. Euskal gatazka gainditzeko, ezinbestekotzat jotzen du ETak su-etena ematea. Horrekin bakarrik, hala ere, gatazka ez litzatekeela konponduko uste du.



ARROA BEHEKO taberna batean bildu gara. Gustura hitz egiten da Josebarekin euskal gatazkaz. Komunikabideetan azaltzen diren informazioei beste ikuspuntu bat bilatzen saiatzen da. Asko hausnartzen duen gizona da, eta une erabakigarrian gaudela uste du.

Nola sortu zen " Su-etenaren aldeko ekimena"?

Joseba Ossa: Hiru saio edo fase izan ditu. Lehenengoa

ETak su-etena hautsi zuenean izan zen, duela lau urte. Jende askorentzat izugarrizko hanka-sartzea izan zen, eta gure ustez ere atzerapausoa zen. Hori ikusita, zenbait jende hitz egiten hasi ginen, eta zerbait egiteko gogoia ere piztu zitzaigun. Bigarren fasea edo bultzakada Joxe Mari Korta hil zutenekoa izan zen. ETak beste atzerapauso bat egin zuen euskalduna, euskaltzalea eta abertzalea zen gizona hilda. Orduan ere zerbait egiteko gogoia handitu egin zitzaigun. Baina gogo horiek ere han gelditu ziren.

Hirugarren fasea eta erabakigarria Egunkariaren itxiera izan zen. Estatuak eta PPK egin zutena izugarritzko astakeria iruditu zitzaigun. Horren aurka jende asko mugitu zen, baina etxeko eragile erabakigarri baten aurrean, alegia ETaren aurrean, inor gutxi mugitzen zela konturatu ginen.

Zenbait idazlek orain urtebete argitaratutako artikuluek bultzada eman al zizueten?

Joseba: Bai, orduan argitaratu zituzten Pako Aristik, Joan Mari Irigoienek, eta Santiago Albak, besteak beste, borroka armatuaren kalteei buruzko artikulua. Hain bakarrik ez geundela konturatu ginen orduan, eta zerbait martxan jartzea erabaki genuen. Idazle horiekin eta beste eragile batzuekin hitz egin, eta hortxe sortu zen ekimenaren txinparta.

Nortzuk sortu zenuten ekimena?

Joseba: Lehendik ere lagunak ginen pertsona multzo batek. Itzulpengintzan lanean ari garen batzuk, mugimendu antimilitarista eta intsumisioaren munduko beste batzuk, eta euskalgintzako beste batzuk bildu ginen hasieran. Guztiok ere geure burua ordezkatzera joan ginen, eta ez talde jakin baten izenean. Pertsonak ari ginen lanean, eta ez taldeak.

Zergatik eskatzen diozue ETari su-etena?

Joseba: Gure ustez, ETaren ekintzak zilegitasunik gabeak eta oso kaltegarriak dira maila askotan: sufrimenduaren kate luzetik hasi, euskal politikagintzan, euskalgintzan, herrigintzan, nazioarte mailan eta abar. Borroka armatuaren kalteak izugarriak dira, eta horren aurrean beste zerbait egin nahi genuen, beste urrats kualitatibo bat eman, eta gehienbat euskaldunon eta euskalgintzaren ikuspegitik. Euskal gizarteak era askotara esan dio ETari armak uzteko, desagertzeko, etab. Baina euskalgintzatik badago halako isiltasun bat. Konturatu ginen gai honen inguruan, euskalgintzan tabu antzeko bat badagoela. Euskalgintzako jende



"Negoziatzeko gaitasunik gabe gelditzen ari dira, eta horregatik ere eskatzen diogu ETari su-etena emateko, bestela amaiera tristea eta gogorra izango duelako"

gehiena oso kritikoa da borroka armatuarekin, erreta daude gehienak, baina jende aurrean jarrera hori azaltzeko garaian, zailtasun nabarmenak daude. Horren aurrean zerbait egin nahi genuen, eta horregatik egin genuen Martin Ugalde Kultur Parkeko aurkezpena, eta horregatik bilatu genituen gero gurekin egon diren pertsonak.



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

Ekimena babesteko jende askorekin bildu zineten. Nolako harrera egin zizueten, oro har?

Joseba: Pribatuan ETAre aurrean erakutsi diguten jarra-guk uste genuena baino gogorragoa izan da. Pentsa, gure planteamendua gehienei bigunegia iruditu zaie. Euskalgintzako jende askok (idazle, musikari, artista) ETari su-etena baino gehiago eskatu behar zaiola esan digute. Desagertzeko eskaera egin behar zaiola diote. Guk beste era bateko jarrera espero genuen, gure planteamenduen aurkakoa ere bai, baina oro har, ezker abertzaleko erreferentzia kulturalak direnak oso erreta daude ETarekin. Pribatuan oso gogor hitz egiten dute ETaren aurka, baina gero, gurekin aurpegia emateko eskatu genietan ezezkoa esan ziguten askok. Hala ere, oso pozik gaude erantzunarekin, inork ez gaitu gaizki hartu.

Hitzetik hortzera dabil ezker abertzalean ETaren jarduerarekin ados ez daudela. Mugimenduak ere ba omen dira. Izan dituzuen harremanetan horretaz jabetu al zarete?

Joseba: Bai, oraingo honetan oso garbi ikusi dugu ezker abertzaleko jendeak barri-barrian nahi duela armak isiltzea.

Aralar-en jarrera oso ezaguna da, eta publikoa. Hori garbi dago. Baina Batasunako jendeak ere su-etena nahi du. Beraiek esaten digute borroka armatuak, Euskal Herriari ez ezik, beraiei ere izugarritzko kaltea eragiten diela. Hori pribatuan diote, baina publiko egiteko arazoak daude. Etxe barruan traizioa egitea bezala ikusten dute, eta beraien arteko batasuna hautsi lezakeela esaten dute. Batek oso ondo azaldu zuen egoera hori: "familia bat gara, eta nahiz eta kide bat gaizki ibili, guk hori ez dugu publikoan salatuko".

Pribatuan diotena publikoan esatea falta, orduan.

Joseba: Bai, eta hori oso garbi ikusi da Bergarako Proposamenarekin. Besteek borroka armatua gaitzesteko eskatu diotenean, Batasuna ez da gai izan publikoki hori onartzeko. Pribatuan onartzen dute, baina publikoan ez. Eta hori arazo latza da. Beste arazo bat ere badute. Urteetan zehar ETak kapital politiko jakin bat lortu

zuen. 80ko hamarkadan gai ziren estatuko gobernuarekin negoziatzeko, Arjelen ikusi zen bezala. Baina orain kapital hori agortzen ari zaie. Gobernuarekin ezin dute negoziatu, alderdi politikoekin ere beste horrenbeste, eta Lizarra-Garaziren antzeko ekimen bat ere ezinezko ikusten da. Azkeneko aukeretako bat Bergarako Proposamena izan da, berez proposamen zentzuzkoa eta interesgarria, baina orain ikusten da horretarako gaitasunik ere ez daukatela. Proposamena onartzearen truke su-etena eskainita ere, inork ez die onartu. Horregatik, garbi dago kapital politiko

"Oro har, ezker
abertzaleko
erreferentzia
kulturalak direnak
oso erreta daude
ETarekin"



hori xahutzen ari dela, eta gure ustez, zenbat eta denbora gehiago pasa, kapital politiko hori txikiagoa izango da. Negoziatzeko gaitasunik gabe gelditzen ari dira, eta horregatik ere eskatzen diogu ETari su-etena emateko, bestela amaiera tristea eta gogorra izango duelako. Bai berak eta baita ingurukoek ere. Aurreko Baleiken idatzitako artikulua dela-eta, batzuek esan didate ETako presoak kartzelan usteltzearen aldeko naizela. Eta justu kontrako da! Presoen egoera hobetzea nahi dut nik, eta ETak bukaera duina izatea, baina horretarako ezinbesteko ikusten dut su-etena. Orain etorkizun iluna dute ETak eta ingurukoek, baina horrela segitzen badute, are eta ilunagoa.

Bergarako Proposamenari ezezkoa esan diote alderdi abertzaleek. Zer iruditzen zaizu jarrera hori?

Joseba: Ez dut ondo ikusten, baina ulertzen dut. Ni EAJ edo EA banintz, proposamena onartu egingo nuke, herri honi irtenbide duina eskaintzen ziolako. Baina beraien konfiantza eza ere ulertzen dut. EAJk eta EAk zilegitasun guztia dute ETak aktibo segitzen duen bitartean bide horretatik ez joateko. ETaren proposamena xantaia modura ikus dezake, eta hori ulertzen dut. Hala ere, bestelako gatazka guztietan bezalaxe, hemen ere amore emateko prest egon beharko genuke alde guztiok. Su-etena eta bakea ekarriko lituzkeen egoera bati ezezkoa ematea ez dut ondo ikusten. Gainera, alderdi politikoek interes elektoral asko izaten dituzte, eta dena hartu behar da kontuan.

Nazio Eztabaidagunea ere hor dago. Zerbait ekarriko duela uste al duzu?

Joseba: ETak badaki gelditu egin behar duela. Baina gelditzeko lur hartzeko pista bat behar du. Militar batentzat oso gogorra da galtzen ari dela onartzea. Alde horretatik, Nazio Eztabaidagunea ETari amaiera duina prestatzeko ahalegina izan daiteke, eta txukuna, gainera, baina nahiko mugatuta dago partaidetza eta legitimitate aldetik.

Etorkizunik ez diozu ikusten?

Joseba: Ez dakit zer esan... Aukera gehiago ikusten nizkion alde horretatik Bergarako Proposamenari, ETak garbi utzi zuelako su-etena emateko prest zegoela baldin eta besteek onartzen bazuten. Nazio Eztabaidagunean ez da EAJ sartu. Badirudi batik bat Batasuna, EA eta Zutikeko jendearen ahalegina dela. Azkenenean, agian ETak akordio txiki eta partzial batekin konformatu beharko du, besterik ez

daukalako. Baliteke Nazio Eztabaidagunetik zerbait etortzea, baina ez dakit...

Zuek egindako su-eten eskariari ETak zuzenean erantzun al dio?

Joseba: Ez. Oraingoz ez dugu erantzun zuzenik jaso. Ezta zeharkako aipamenik ere. Baina esanguratsuak izan dira batez ere Iparraldeko hainbat eragilerengandik jaso ditugun erantzunak.

Prentsak zuen ekimenari emandako garrantzia ez al zen eskas samarra izan?

Joseba: Gure artean era guztietako iritziaik daude horren gainean. Alde batetik, esker-tzekoa da sortu berria den talde baten albis-tea egun bereko informatiboetan agertzea.

Bestetik, pentsatzekoa da EITBri ez zaiola asko axola horrelako ekimen konkretuari arreta jartzea, batez ere, kultur-gintzakoa baino gehiago ezker abertzaleko ekimena balitz bezala hartu izan delako.

Eta gainontzeko prentsaren jarrera nolakoa izan zen?

Joseba: Erantzun kritikoak oso gutxi izan ziren. Adibidez, Garan isiltasuna izan da nagusi, ziurrenik noraezean daudelako edo gure ekimenarekin ados egon arren, han bertan, publikoki hori agertzea ez zaielako ongi iruditzen. Kontrako kritikak gutxi izan dira. Orain gutxi Argian Jon Enparantza abokatuak egin zigun bat, baina deskalifikazio erraza, pisuzko argudiorik gabekoa. Egia esan, batzuen aldetik kritika gogorragoak espero genituen ETari zuzenean su-etena eskatzeagatik, baina ez da hala izan. Eta, aldiz, kritika positiboak ugariak izan dira.

Euskal prentsaren jarrera aipatu duzu, baina espainiarrrena zein izan zen?

Joseba: Oro har, euskal prentsak baino galdera gehiago egin zizkiguten Andoaingo ekitaldia bukatuta. Itxura denez, euskal prentsak bazekien nondik nora goazen, baina espainiarrek (Efe agentziak, Diario Vascok, El Mundok...) jakin-mina zuten gu nor garen, zer nahi dugun, eta horrelako gaien inguruan. Gainera, harritu egin ziren gure aurkezpenaren bezperan kaleratu zen Bergarako Proposamenaren bide beretik gindoazela esan genienean. Hau da, su-etena eskatzeko arrazoietakoa bat abertzaleen arteko zatiketarekin amaitzea zela esatean harritu egiten ziren. Ezin zuten ulertu nola aurre egiten genion ETari, eta bestetik, begi onez ikustea Bergarako proposamena.

“Batasunako jendeak ere su-etena nahi du”



Espainiako prentsarekin segita, ederra egin dute Carod-Rovirarekin. Nola ikusi duzu ETak eta politikari kataluniarrek izandako elkarriketaren inguruko guztia...

Joseba: Alde batera penaz, eta bestetik, itxaropenez. Penaz, ikusita nola kriminalizatu nahi duten elkarriketa saioa. Hipokresia izugarria dago. Aznar eta bere gobernuak prest dago munduko terroristarik handienei laguntzeko, prest dago indarkeria bultzatzeko bere interesen alde, prest dago presoen eta senideen giza eskubideak urratzeko eta beste astakeria izugarriak egiteko, eta gero, bake bila elkarriketataz baliatzen den gizon bat horrela kriminalizatzea... zeharo hipokrita eta lotsagabea iruditzen zait. Hor garbi ikusten

da zein den PPren benetako interesa, eta zein eskrupulu gutxi dituen bere probetxurako egiteko.

Bestetik, itxaropena ere eragiten dit, auzi honek gauzak mugitzen lagundu dezakeelako, elkarriketarako aukerak indartu egin daitezkeelako, eta mugimendu ausarten beharra dugulako.

Andoingo aurkezpena egin zenutela pare bat hilabete pasa dira. Zein dira orain zuen asmoak?

Joseba: Ideia batzuk baditugu, eta harremanetan gaude bidelagun izandako batzuekin. Laster gara hain harreman ona daukagun Iparraldekoekin biltzekoak, Baionan. Ez



ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

"Ni EAJ edo EA banintz,
Bergarako proposamena
onartu egingo nuen, herri
honi irtenbide duina
eskaintzen ziolako"

dakigu oraindik zer, baina zerbait egingo dugu,
Andoaingoa ez zelako bukaera izan, hasiera baizik.

Pentsatu al duzue ETArengana zuzenean jotzea?

Joseba: Ez, batez ere gaitasunik ez daukagulako. ETako aktibistengana ez dugu joko, baina bai militante historikoengana. ETako sortzaile batzuekin harremanetan gaude, eta beraiek prest daude gurekin zerbait egiteko. ETak amaiera duina izan dezan laguntzeko prest daude, eta hain zuzen, hori da buruan daukagun ideietako bat.

Herriz herri, gure kasuan Zumaian, zerbait egiteko asmorik bai?

Joseba: Ez, jende gutxi gara herrietan taldeak sortzeko. Hala ere, herriren batean interesa duten pertsonak bilduko balira, talde egitura ematen lagunduko genieke.

ETak su-etena eman edo borroka armatua betirako utziko balu, gero zer?

Joseba: Guretzat hori da galderarik garrantzitsuenetakoa bat. Gure helburua ez da ETak armak utzi, eta kitto. ETak armak uztea, besterik gabe, ez litzateke nahikoa izango bakea izateko. Sekulako aurrerapausoa litzateke, baina gero beste pauso batzuk eman beharko lirateke. Guri dagokigunez, ez dugu erabaki su-etena etorritz gero zer egingo dugun. Euskalgintzako kide askok esan digute, ekimenean elkartu garenok abertzaleen arteko elkarlana bultzatzen lagun genezakeela. Beste batzuk



JOSEBA OSSA

39 urteko zumaiarra da Joseba. Utopikotzat dauka bere burua, eta gizarte gaietan aritzea gustatzen zaio. Bizikletan ibiltzea, mendira joatea, eta palan jokatzeko gogoko ditu. Hala ere, bere zaletasunik preziatuena familiarekin etxe giroaz gozatzea da.

nahiago lukete herri kontsultaren inguruan lan egitea. Dena irekita dago.

Ekimenari atxiki nahi zaionak zer egin behar du?

Joseba: Gu ez gara sinadurak biltzen ari. Jendearen laguntza eta proposamenak jaso nahi ditugu. Horretarako, helbide elektroniko hau daukagu: suetena@euskalerrria.org.

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Arotzegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

"Ahal den arrautza gutxienekin ahal den txita gehiena eta osasuntsuena ateratzea da gure lana"

Hegaztien gripea Asia aldean txikizio galanta egiten ari da. Une egokia iruditu zaigu oilaskoekin hemen lana nola egiten duten jakiteko. AN kooperatibaren barruan dagoen Oikiako Costa Inkubadoran izan gara.



OILOAK. Arrautzak. Txitak. Inkubadorak Granjak. Tenperatura. Bakuna. Eguna joan eta eguna etorri oilaskoekin lan egiten dutenek erabiltzen dituzten hitzak dira. Martxial Azkuek, Costa Incubadora enpresako arduradunak ederki asko ezagutzen ditu hitz horiek. Ez daramatza alferrik hogeita hamar urte baino gehiago oilaskoekin lanean.

Katean egin beharreko lana

Hain jaki preziatua dugun oilaskoa platerean ikusi aurreko lana katean egiten da. Begi asko ditu kateak. Martxial Azkueren ardura da begi horietako batek lana behar bezala egin dezan zaintzea. "Ahal den arrautza gutxienekin ahal den txita gehiena eta osasuntsuena ateratzea da gure lana", dio Martxialek. Lan hori egiten dute Costa Inkubadoran.

Hain jaki preziatua
dugun oilaskoa
platerean ikusi aurreko
lana katean egiten da

Oilok jarritako arrautzak jaso

Katearen aurreneko begia oiloa da, edo zehatzago esateko, oilok errundako arrautzak. Astean 400.000 arrautza ekartzen dituzte Costa Inkubadorara. "Hemen inguruko oilok jarritakoak

izaten dira. Mungiatik, Aizarnazabal-dik, Elkano eta Igeldotik, Aiatik, Leitzatik, Berastegitik eta Iturendik ekartzen ditugu arrautzak", esan digu Martxialek. Arrautza denak bildu ondoren, ondo garbitzea eta desinfektatzea izaten da hurrengo lana. Behin hori eginda, ondorengo pausoa zein den ezagutuko dugu.

Txitak inkubatzea hurrengo lana

Hauxe izango da kate guztiko lanik garantzitsuena. Lan honetan huts egiten bada, akabo. Martxialek ederki azaltzen digu Costa Inkubadoran egiten duten lan nagusia nolakoa den: "Gainean egon behar dugu. Lan erraza da, baina gauza txiki asko ditu, eta arreta handiarekin ibili beharra daukagu".

Behin arrautzak bildu, garbitu eta desinfektatu ondoren, inkubadoran sartzen dituzte. Helburua oilok egiten duen lan bera egitea da, eta denbora berean, gainera. Oilok hiru aste behar

izaten ditu txita ateratzen. Inkubadoren lana ere horixe da: hiru astean txita ateratzea. Oilok berotasuna ematen dio txitari, eta asko mugitzen du. Inkubadorek beste horrenbeste egin behar dute. Oilok ez bezala, horretarako teknologia erabiltzen dute Costa Inkubadoran.

Oilok hiru aste behar
izaten ditu txita
ateratzen.
Inkubadoren lana ere
horixe da: hiru astean
txita ateratzea

Astean 300 bat mila txita atera behar izaten dituzte. "400.000 arrau-





tza erabiltzen ditugu, eta horietatik %90 onak aterata oso portzentaje ona da", adierazi digu Martxialek. Izan ere, jasotzen duten arrautza guztiak ezin dira inkubatu, eta inkubatutako txita denak ere ez dira onak ateratzen. Martxialek berak esan bezala, ezin bestekoa da gainean egotea. Inkubadore tako tenperatura oso ondo zaindu behar da. Gutxi gorabehera 37 gradutan egoten dira inkubadoran. Lehen esan bezala, mugitu ere egin behar dira. Hori makinek, inkubadorek egiten dute. "Oiloak txita mugitu egiten du, arrautzan zentratuta egoteko. Helburua txita berak arrautza mokoarekin puskatzea da. Horretarako derri gorrezkoa da txita arrautzan zentratuta egotea", azaldu digu Martxialek.

Hiru aste, hemezortzi bat egun egoten dira txitak inkubadoran. Jaio baino hiru bat egun lehenago gela batera era-

maten dituzte, "jaiotzeko geletara eramaten ditugu, horretarako tenperatura eta hezetasun egokia duten gelak ditugu prestatuta. Hantxe jaiotzen dira". Orduantxe jakiten omen dute txita ona edo txarra atera den. Gutxi gorabehera astean 300.000 eta 320.000 txita ateratzen dira onak. Kopuru horretan ibili beharra daukate. Ederki azaltzen digu Martxialek zergatia: "Etxeko komertzialak saldu lezakeen kopurua da".

Costa Inkubadoran egin beharreko azkeneko lanak

Txitak jaio ondoren, katearen begi honetako azken lanak egitea besterik ez zaie geratzen. Hiru aste inkubatzin egin eta gero, behin jaio ondoren kontatu egin behar dira txitak. "Kontatu, bakunatu eta kamioian sartzen ditugu", esan digu Martxialek. Hori eginda, Costa Inkubadoran egin beharreko lana bukatu egiten da. Hala ere, oilas-

koa mahaira iritsi bitarteko bideak jarraitu egiten du.

Hurrengo kate begia: granjak

Kamioietan sartu eta badoaz txitak. Bidaia granjetan bukatuko dute. Guztiak kooperatibak kontratatutako granjak direla esan digu Martxialek. Katearen hurrengo begia dira granjak. Han egin beharreko lana txitak oilasko bihurtzea da. Horretarako behar dituen baliabide denak ematen dizkio kooperatibak granjeroari: pentsua, laguntza teknikoa, albaitaria... Oilaskoak kalitatekoa izateko granjak ondo egokituta egon behar du, bai baliabideen aldetik, baita tenperatura aldetik ere.

Granjan txitak jaso ondoren, txita horiek hazteko lana hasten da. Txitak oilaskoa eginda atera behar du handik. Horretarako hoge, hogeita bost bat egun behar izaten ditu. Behin oilasko eginda, guztiak hiltegiara eramaten

dituzte. "Oso bizimodu motza dute, 40 edo 45 eguneko", erantzun digu Martxialek oilaskoen bizimoduaren iraupenaz galdetuta. 40 egun baino gutxiago dituen oilaskoak 1.700 gramo edo pisatzen omen ditu. Tamaina horretakoak erretegi-tara-eta eramaten dituzte. Handiagoak dira 40 egunetik gorakoak. Oilasko horiek txikitzeo erabiltzen dira, bularkiak, izterrak eta hegoak egiteko.

Hiltegietan bukatzen da oilaskoen bizitza

Katearen azkeneko begira iritsi gara. Hiltegiak. Urte asko ez dela Oikiako hiltegiaren hiltzen zizutzen oilaskoak. Orain kooperatibak Iruñean duen hiltegiaren ematen dituzte azken egunak oilaskoek. Eta hortik gure etxeetara, eta mahaira. Eta mahaitik....

Hegaztien negozioa estu dabil

Azkenaldian oilaskoa prezioaren azpitik saltzen ari dira. Estu-estu dago negozioa. Nonbait, Asia aldean hedatu den hegaztien gripe madarikatuak eragina izan du salmentetan. Hala ere, leku guztietan ez dabilta hain gaizki oilaskoen negozioan. Martxialek Brasil aipatu digu. Ikaragarritzko mauka omen da negozio hau Amerikako herrialde hartan. Honela azaldu digu hango egoera: "Esku lana merke-merke daukate, eta jendea ugari. Hemen 20.000 oilaskorekin pertsona batek lan

egiten du. Han 4.000ren ardura dauka pertsona batek. Gainera, osasun neurriak hemengoak adinakoak dituzte, eta hori dena gutxi balitz, pentsua egiteko lehengaia oso ona eta merkea daukate. Gure aldean erdi prezioan ekoizten dute".

Azkenaldian oilaskoa
prezioaren azpitik
saltzen ari dira. Estu-
-estu dago negozioa

Hemen bertako labelak egoera hobetuko al luke?

Galdera hori egin diogu Martxiali. Labela badagoela esan digu. Oilasko begetala deitzen zaionak dauka hemen bertako labela. Produktu kimikorik gabe hazitako oilaskoa da begetala, artoarekin elikatutakoa. Horrelakoekin lan egitea pentsatzen ari direla esan digu, baina arriskutsua dela ere gaineratu digu, "bestea baino garestiagoa da, eta guk astean 30.000 atera, eta erdiak bakarrik saltzen baditugu, saldu gabekoak prezioa normalean saldu beharko genituzke, eta hori dirua galteza litzateke".

Hegaztien gripea: Europara hedatuz gero ez legoke arriskurik

Gainetik aipatu dugu Asian hainbeste buruhauste eragiten ari den hegaztien gripea. Zerbait gehiago sakondu nahian, Costa Inkubadorako albaitaria, eta AN kooperatibako hegaztien ekoizpenaren arduraduna den Antonio Alegrerekin hitz egin dugu. Bera izatez Zaragozako da, baina Euskal Herrina ari da lanean. Albaitaria izanda, argibide asko eman dizkigu gripe malapartatu horri buruz.

Duela 100 bat urteko gaitza da hegaztien gripearekin bataiatutakoa. Hala ere, 1955ean ezagutu zen lehen aldiz. Orduan atzeman zuten zer zen. Nonbait, gripearen birusaren barruan era guztietako birusak daude. Hirutan banatzen dira gripe denak: A motakoak, B motakoak eta C motakoak. A motaren baitan daude, alde batetik, gizakiaren gripea, eta bestetik, animaliena: zaldiarena, zerriarena, oilaskoarena, etab. Izaki bizidunen gripeetan onak eta txarrak daude. Biak nahasten direnean sortzen omen dira arazoak. Eta itxura denez, horrelakoxe zerbait gertatu da Asian. Oilaskoen gripe ona eta txarra nahastu egin dira. Gainera, eta espezie batetik bestera gripea pasatzea zaila izan arren, Asian hegaztien gizakiengana pasa da.

Antonio Alegreri hemen antzeko zerbait pasa litekeen galdetuta ezezkoa esan digu. Datu bat ere eman digu, lasaitzeko datua, gainera. Duela urtebete hemen bertan analisiak egin ziren, eta emaitzak bikainak izan ziren.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentu

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Santiagoko hondartzan egin behar dituzten lanak beharrezkoak al dira?

Gauza bat da zerbait egitea, eta bestea nola. Orain ere Udalak herritarren iritzia ez du entzun. Hori al da demokrazia?

Kepa

Santixon zerbait egin beharra dago. Baina hainbeste kalte egiten duten makinak eta gizakiaren hatzaparrak sartu beharrean, zergatik ez zaio dunari berez bereko bilakaera egiten uzten?

Antxon

Azpeitiarrei galdetu al diete nolako proiektua nahi duten? Santixoko hondartza azpeitiarrena omen da...

Ainhoa

Nei ondo iruitzen tzat Santixon zerbait eitia. Behar du zeoze gure hondartzak. Halare gustauko litzake Udalak herriko jendiai galdetzia gauzak eta proiektuak ein aurretik. Aber hurrenguan galdetzen diguten...

Ana Mari

Lotsagarriya da Zumaiko Udalan altaboz propagandistikua dan Paola rebistan jarri dutena jartzia: ekologia aldetik eredugarriya dala proiektua. Hori inork e ez du sinisten!! Zeatik ez dute behin e egiya esaten? Udala beti izkutuan eta gezurretan!!

Joxe Mari

CROISSANTERIA



**pizzak
hanburgesak
bokatak...**

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323


Ortega y gasset, 1

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:

- Harrizko dunak ematen dute.
- Egokiak dira, kotxeek abiadura mantsotu beharko dutelako.
- Ez dira beharrezkoak , eta itsusiak dira, gainera.
- Kotxeentzako kaltegarriak dira. Beti gora eta behera, hondatu egiten dira.

Beharrezkoak al dira moilan, zebra bideetan ipinitako koxkak?

Erantzunak helbide honetara bidali: baleike@topagunea.com



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 04 40

TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

gidatzeko baimen guztiak



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Tapaia

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

Kaleko giroa Zumaian

6.

BERTSOPAPER Lehiaketako irabazleak Maddi Gallastegi eta Gorka Iribar izan ziren. Maddiren bertsoak onenak izan ziren gaztetxo-en sailean. Gorkarenak, berriz helduen mailan. Zumaiaiko kaleko giroaz idatzi behar zituzten bertsoak. Hemen dituzue sorta bakoitzeko bana.



Zumaiaiko
Bertso Eskola

Maddi Gallastegi

Doinua:

Partida tristea Ternuarat

-I-

Herriaren bihotzean
aurkitzen da Erribera,
giro oso ezberdinak
denboraren arabera;
zortzietan itsasgora,
hamarretan itsasbehera;
negu beltzean batik bat
tabernaren babesera. (bis)
Batzuek kalean gora,
beste batzuek behera,
zenbat jada mozkorturik,
beste hainbat egarbera.
Zer da giro herrikoi hau
bor-bor jartzen duen zera,
kai ingurutik datorren
kresal usaina ote da? (bis)

Gorka Iribar

Doinua:

Nere gorputza dardarka daukat

-I-

Taberna batzuk pasa ditugu
gorritu zaigu bisaia,
zein tentagarri zaigun Goikoko
pintxo goxoen usaia,
hori dastatu ostean berriz
pare-parean Trapaia,
tripak esan dit iritsi dela
afariaren garaia,
baina hainbeste garagardokin
erdi asetu gera ia.
hau da batasun alaia,
nork desio du amaia?
Herritarrongan sortzen denean
festa gogo eta nahia,
apala bezain xarmangarria
bilakatzen da Zumaia.

Koitoa praktikatzean mina

E

LKAR ERANTZI, muxu batzuk eman, zertxobait laztandu eta hala barrura! Gezurra badi-rudi ere, oraindik, egun, zenbait bikoteren sexu

harremana koitora mugatzen da. Etxeko atea jo eta irekitzea izango balitz bezala jokatzekoak, eta bien bitartean,

emakumea gizonak noiz bukatu zain. Eta gainera minez. Bai, zenbait emakumek mina senti dezake koitoa praktikatzeko duenean. Mina arrazoi askorengatik sentitzen da. Zenbaitetan, txikitan jasandako tratu txarren ondorioz da, baina ez da hori arrazoi nagusia. Gure gizarte honetan, koitoari buruz aipatutako aldrebeskeria eta tabu guztiak entzun ondoren, zenbait beldurra senti dezake. Beldurra hasieran sentituko duen "min" horrengatik, beldurra haurdun gelditzeko... Azken batean, beldurra informazio ezak sortutako egoera dela esan genezake.

Horrela, bada, beldur guztiek bere isla dutenez, beldurra duenak, senez, bagina itxi egin dezake, eta horren ondorioz, koitoak min eman diezaike. Mina maila desberdinetakoa izan daiteke, molestia txiki batetik hasi eta koitoa ezin praktikatzera. Gainera, horrelako egoerek frustrazioa eragin dezakete; izan ere, berriz koitoa praktikatzean mina izango duela pentsatze hutsez, ez du gozatzen eta koitoa praktikatzeko ere gogorik ez du izaten. Logikoa, inor ez baikara izatez masokistak.

Beraz, horrelako egoeretan, garrantzitsuen gure ohitura sexualak aldatzea da. Koitoa baino lehen elkar ferekatu, dastatu, miazkatu... elkar gozatu. Emakumeak egon behar du koitoa praktikatzeko prest, ez gizonetakoak. Emakumea ez badago prest min egin diezaike. Baina guztien gainetik garrantzitsuen komunikatzea da, bakoitzaren nahiak, beldurrak, fantasiak, ezintasunak esatea, eta horiek betetzen saiatzea edo konpontzea. Azken batean, gauza guztiek dute konponbidea. Eta guztiok behar dugu zerbaitean laguntza. Behar den lekura laguntza eske joanez gero, harrituta geldituko zinateke zein azkar jar dakioken konponbidea "arazo" honi. Zure gorpuzak eskertuko du.



Ihintz Linazisoro.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Esnea eta esnekiak

Dietetika

UGAZTUN EME guztiek, erditu ondoren, denboraldi batez bere kumeak elikatzeke bularretatik esnea jariatzen dute. Emakume esnea, proteina eta kaltzioan urriena da guztien artean, baina burmuinaren garapenerako beharrezkoak diren grasetan aberatsena da. Oso gomendagarria da haurrei bular esnea ematea, immunitatea garatzeko ere ezinbestekoa baita.

Ugaztun esneen artean, gure gizartean gehien kontsumitzen dena behi esnea da, gutxiago ardiarena eta apenas behor edo ahuntzarena. Behi-esneak proteina eta kaltzio ugari ditu, grasa saturatuak(kaltegarriak) eta kolesterola, eta laktosa izeneko azukre konplexua, glukosa eta galaktosaz osatua. Esnearen azukre hauek aprobatxatu ahal izateko, gure gorputzean laktasa izeneko entzima batek glukosa eta galaktosaren arteko lotura eten behar du. Entzima hau, bularraldiaz geroztik, galdu egiten da, eta ezin izaten da esnea ondo dijeritu; diarreak eta hesteetako arazoak ematen ditu. Teorian osasunerako mesedegarria den elikagai hau beste gaitz askoren eragile izan daiteke: sistema linfatikoa zikintzen du, mukiak sortaraziz; bere kontsumoa minbizi askoren agerpenarekin erlazionatua dago; txitxareak garatzeko lagungarria da... Iogurra eta gazta, esnea baino osasungarriagoak dira, yoguraren kasuan gainera, bifidobakterien eraginez laktosa predijertua egoten da.

Gure gizartean oso errotuak badaude ere, esnea eta esnekiak ez dira ezinbestekoak giza elikaduran. Zenbat eta esneki gutxiago kontsumitu (gehienez 2 egunean), orduan eta mesede handiagoa egingo diogu gure osasunari, eta ez dugu zertan kaltzioagatik larritu behar. Esneak asko badu ere, magnesioan urria da, eta ezinbestekoa da hezurrek kaltzioa erabili ahal izateko. Esnearen ordezkotzat, "esne begetalak" erabil ditzakegu: sojarena, oloarena, arrozarena, urrarena, intxaurarena... Bere konposaketan kaltzio eta magnesio asko duten elikagaiak ere aipatzekoak dira: barazki orlegi ilunak, sesamoa, apioa, aza, brokolia, soja, pikuak, aran lehorrak, olibak, algak(batez ere hijikia), fruitu lehorrak...



IzagaGarcia
Dietista

Jose Maria Zubia Zigaron, «Aita Mari» (1809-1866)

ZUMAIARRA ZEN sortzez Aita Mari. 1809ko martxoaren 15ean jaio zen, eta aita bezala arrantzan hasi zen txiki-txikitik. Lehen karlistadan familiak dena galdu zuen, eta egoera latz hartan Ameriketara zenbait joan-etorri egin zituen Aita Marik.

EHan ezin ohitu, ordea, eta berrogei bat urte zituela, 1850. urtearen inguruan beraz, Donostiara joan zen lanera eta bizi izatera. Txalupa baten jabe egin zen, eta berak zekien lanean hasi zen: patroi lanetan, alegia.

Marinel iaio eta trebea izan behar zuen, inondik ere. Orduan arrantzaletasuntzietan ez zegoen gaur bezalako tresneria eta ziurtasunik; gizon asko hiltzen zen itota itsasoan... Aita Marik askotan erabili zuen bere trebezia itsaso haserreari bere hatzaparretik arrantzaleak kentzeko. 1861eko uztailaren 13an udan izaten den galerna bizi horietako bat altxa zen bat-batean; portura itzuli nahi eta ezinean, txalupa bateko lau gizonak uretara erori zirela ikusita, Aita Marik tximista baino azkarrago atera zituen bizirik; bigarren mailako benefizentziako gurutzea eman zioten ekingintza harengatik. Donostian errespetu ikaragarria irabazi zuen Aita Marik!

Ez zion askorik balio izango, ordea. Bost urte beranduago, 1866ko urtarrilaren 9an goizean goiz txalupak Getariatik Lekeitio aldera abiatu ziren amuko bixiguen bila; goiz erdian, beldurgarritzko ekitza altxa zen: eguraldi ikaragarri txarra, denborale izugarria... Haizearen kontra ezin, eta txalupak Pasaia eta Donostiara joan ziren. Elkano I. zen lehendabizi zetorrena, Manuel Aramendi patroi zuela; Pasaia portura sartzen saiatuta ere, puntetan hil ziren hamazortzi gizonak. Bigarren txalupa, Elkano 2. izeneko, Jose Maria Sorreluz patroi zuela (aurrekoaren koinatua), hura ikusita Donostiaraino heldu zen; sartu ezinik, gizonak borroka latzean ikusita, Aita Marik ez zuen zalan-tzarik izan: presaka atera zen berte txalupan laguntzera. Itsasoak erraldoiaren indarra zuen, ordea, eta denak irentsi zituen; Aita Mari ere bai. Guztira, hogeita hamazortzi gizon eraman zituen itsasoak egun goibel hartan!

Aita Mariren oroimena ez da ordea galdu. Zumaian, Erribera kalean, eta Donostiako moilan, bere irudiak gogoraratzeko digute gizon txiki haren handitasuna. Arrantzaleen artean bizirik omen da oraindik Aita Mariren koplak: -Oh! Mari leial, on, bihotz hutsa!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Aseguratuak
Finan Administrazioak

biomin aguirre 4. behe
20.750 zumaia (guzuzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta
tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

20. Lasterketa Herrikoia otsailaren 29an

Azkeneko prestaketak egiten dira antolatzaileak.

Otsaileko azken igandean izango da, dagoeneko 20. ekitaldia duen Lasterketa Herrikoia. Izenak berak ederki adierazten du zein den bere izaera eta filosofia: herrikoia. Horixe da helburua. Nahi duen guztiak parte hartu, eta kirola egitea.

Aurten ere, urtero bezala, bitan banatuko da proba. Lehenik umeen txanda izango da, eta ondoren helduena.

Umeen lasterketak

Lau izango dira guztira. Hasi alebinak hasiko dira, goizeko 9:30ean. Neska-mutilak nahastuta ariko dira, gainontzeko proba guztietan bezala. Alebinek 1.250 metro egin beharko dituzte.

Ordu laurden geroxeago, 9:45ean infantilen korrika apustua izango da. 2.500 metroko ibilbidea izango dute.

Ondoren, 10:00etan kadeteek izango dute hitzordua. 3.000 metro egin beharko dituzte korrika.

Umeen lasterketekin bukatzeko, benjaminak arituko dira. 10:15etan hasiko dira, eta 400 metroko korrika saioa izango dute.

Izena emateko norbere ikastolan izango dute aukera umeek.

Helduen lasterketa

11:00etan hasiko dira korrikalariak korrika. 10.200 metro egin beharko dituzte. Ibilbidea, beti bezala, herrian barrena prestatu dute, baina bada aldaketa txiki bat. Paolalde-tik hondartzara Juan Belmonte kaletik joan beharrean, Baltasar Etxabe kaletik joango dira. Behin Amaia-ko plazara iritsita, eskubiruntz hartu eta Itzurungo aldapari ekin beharko diote.

Izena emateko bi aukera dituzte korrikalariak: lasterketa baino egun batzuk aurretik, edo lasterketaren egun berean. Aurretik egiten duenak 6 euro ordaindu beharko ditu, eta leku hauetara joan beharra dauka izena emateko:

Zumaian: Lubaki kiroldegira (943 862021) edo Gaztedi Kirolak-era (943 86 2456).

Donostian: Laister-era (943 430704) edo Apalategi Kirolak-era (943 322285)

Zarautzen: Nere Sport-era (943 131689)

Azpeitian: Aradi Kirolak-era (943 150290)

Beste bi aukera ere badituzte, biak internet bitartez egitekoak: KIROLAK@herrikrossa.com

www.herrikrossa.com

Lasterketa egunean bertan izan ematen duenak 8 euro ordaindu beharko ditu.



Sariak

Betiko trofeoez gain, probako errekorrak hausten dituzte-
nentzat sari bereziak izango dira, urtero bezala. Emaku-
mezkoetan Rosi Talaverak dauka marka, 36 minutu eta
56 segundo. Gizonezkoetan, berriz, Kamel Zianirena da
errekorra, 30 minutu eta 29 segundo. Markak gaintzen
dituztenentzat 15 euroko saria izango da.

Parte hartzaileei dagokienez, ume eta heldu 750 bat korrikalari espero dituzte antolatzaileek. Urtero kopuru antzeko samarrak izaten dira. Helduetan 400 bat izaten dira, eta umeak, aldiz, 300 bat. Horiek beraien lana dotore egingo dute. Ea eguraldiak beste horrenbeste egin, eta korrika apustuekin gozatzeko aukera izaten dugun.

XX. LASTERKETA HERRIKOIA

10.200m

Argazkia: JONYER CARBALLO

LASTERKETAKO EDARIARIK

MAILAK / CATEGORIAS

Benjamínak:
50-60 urte tartekoan jokatuko - 400m
erdiak, 10-00ak

Aholakak:
50-60 urte tartekoan jokatuko - 1.200m
erdiak, 8-00ak

Infantak:
50-60 urte tartekoan jokatuko - 2.000m
erdiak, 8-00ak

Kadetak:
50-60 urte tartekoan jokatuko - 3.000m
erdiak, 10-00ak

Gizonezkoak - Emakumezkoak:
Gazteak: 50-60 urte tartekoan jokatuko
Benjamínak: 50-60 urte tartekoan jokatuko
Beremakak: 50-60 urte tartekoan jokatuko
10.200m erdiak, 11-00ak

SARIAK / PREMIOS

Gizonezkoak (masculino)
Emakumezkoak (femenino)

2.- 80 € 1.- 100 € 3.- 80 €

• 100 erreleboi talde bakoiti garrantzitsuak hartzen, 40-50 atletak, katalak (200) eta emakumezkoak (100) hartzen.

• Na. 100 erreleboi talde bakoiti garrantzitsuak hartzen, 40-50 atletak, katalak (200) eta emakumezkoak (100) hartzen.

• 100 erreleboi talde bakoiti garrantzitsuak hartzen, 40-50 atletak, katalak (200) eta emakumezkoak (100) hartzen.

• 100 erreleboi talde bakoiti garrantzitsuak hartzen, 40-50 atletak, katalak (200) eta emakumezkoak (100) hartzen.

2004ko OTSAILAK 29 ZUMAIA

HAURRAK - 9:30 - NIÑOS
IZEN EMATEA - INSCRIPCIÓN DONAIN - GRATIS

HELDUAK - 11:00 - ADULTOS

IZEN EMATEA - INSCRIPCIÓN 6€

BIGUN BERTAN IZENA EMATEN DUTEN GUTETIK:
TOGOS AGUJELAS QUE SE INSCRIBAN EL MISMO DIA DE LA PRUEBA. 8€

Auzoak izena emateko tokiak:
Labea: Kintola: Tel.: 943 50 20 21 Fax: 943 50 24 56
e-mail: kintola@kintola.com
www.kintola.com
Gasteiz: Kintola: Tel.: 943 14 34 13
Larrea: Kintola: Tel.: 943 43 47 54
Aguiñaga: Kintola: Tel.: 943 30 22 80
Nabasko: Kintola: Tel.: 943 15 55 80
Aretx: Kintola: Tel.: 943 10 02 90

ANTOLATZAILEAK:



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Obra handiak ez dira oraingo kontuak. Lehen ere egiten ziren. Pasarte hau "Zumaia Historia" liburutik hartutakoa da, eta portuan egin beharreko obren berri ematen du. Hemengo eta estatuko administrazioen harremanak nolakoak ziren argitzeko ere balio du testuak.

XIX. MENDEA ETA PORTUAREN HOBEKUNTZAREN PROIEKTU OROKORRAREN HASIERA



ERRIBERA BERRIAK konpondu ondoren, Zumaiaiko portuko hobekuntza eta moldaketa lanak geldituta egon ziren 1883. urtera arte. Zumaiaiko Portuaren aldakuntza eta modernizazio prozesuan gertatutako etenaldi luze hori ez zen udal korporazioen interes faltaren ondorioa izan. Aitzitik, Estatuak ez zuen inolako dirulaguntzarik eman, ez baitzuen "interes orokorreko" portutzat hartzen.

1841. urtetik aurrera, barnealdeko aduanak kostaldera eramane zirenean, Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan berpizkunde ekonomikoa ezagutu zen XX. mendera arte. Berpizkunde ekonomiko horren ondorioz, merkataritza tru-

keak ugaritu egin ziren, eta komunikazioak hobetu, hori behar-beharrezkoa baitzen merkataritzari begira. Portuko merkataritzako hedakuntzarekin batera, garraioen iraultza gertatu zen, hau da, lurrinezko ontziak hasi ziren erabiltzen belaontzien ordez, eta halaber, ontzien tamaina eta edukiera ere handitzen joan ziren. Berehala ikusi zen Zumaiaiko portua ez zegoela garapen ekonomikoaren ondoriozko premiei erantzuteko prestatuta. Argi zegoen, beraz, azpiegitura modernoak sortzeaz gain, portuko bi arazo nagusiak ezinbestez konpondu behar zirela –barraren arriskua eta ibaia- ren sakonera txikia-, Hiriburuaren irabazi iturri garrantzi-



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

tsuenetako bat galdu nahi ez bazen behinik behin: itsas trafikoa.

Portuak 1840ko hamarkadaren hasieran zituen azpiegiturei dagokionez, nahiko urriak zirela esan beharra dago. Gainera, udalean aurkeztutako kexa batzuei esker, horien egoera nahiko kaskarra zela ere jakin dugu. Hasiera batean, udalaren ahaleginak orduko kaiak konpondu eta zaintzera zuzenduta egon ziren. Baina itsas trafikoa gero eta handiagoa zenez, laster ikusi zuten azpiegitura gehiago behar zela. 1848ko maiatzean, badiaren mendebaldean elkarri lotutako bi kai egiteko erabakia hartu zuen udalbatzak. Handik aurrera, udalak hainbat eraikin egiteko dirulaguntzak ere eman zituen.

Portuko nabigarritasuna hobetzeko eta sakonera handitzeko lanak, bestalde, Sustapen Ministerioari zegozkion, eta ez Udalari. Hala ere, Hiribilduak ez zuen Ministerioak inongo dirurik jaso, Probintziako agintariek azaldurtako interes orokorren arabera, diruak beste bi xede izan baitzituen: Donostia eta Pasaia. Horren aurrean, estatutik hobekuntza lanetarako dirulaguntza lortzeko biderik onena kudeaketak zuzenean egitea zela pentsatu zuen Zumaiaiko Udalak. Baina Hiribildua alferrik saiatu zen horretan, Sustapen Ministerioak ez baitzituen Udal korporazioaren eskarakerak aintzat hartu. Ez zuten ezer lortu, aurrerantzean udalak ez zizkion Ministerioari eskaera gehiago egin.

Hala ere, portuko ekonomia eta merkataritzak etengabe egin zuten gora. Bi izan ziren gorakada horren iturburu nagusiak: batetik, Urola Bailarako zementu fabriken produkzioa handitu izana, eta bestetik, zementu hidraulikoaren ezaugarriak (pisu handiko produktua dugu, eta merke saldu beharrekoa gainera). Itsasoa zen zementu hidraulikoa garraiatzeko biderik merkeena eta egokiena. Horrela, merkataritzak berebiziko gorakada izan zuen portuan, eta "espezializatu" egin zen nolabait, hau da, zementu salerosketen

abiapuntua izan zen, Euskal Herriko portuetara, penintsulakoetara eta penintsulaz kanpokoetara.

Gauzak horrela, 1882ko maiatzean, Zumaiaiko Udalak eskaraera hau egin zion Sustapen Ministerioari: Lege Proiektua formulatu eta Gorteetan aurkez zezala, Zumaiaiko Portua "Interes Orokorrekoa" izan zedin. Eta ministerioak hala egin zuen azkenik. Handik bi urtera, 1883ko ekainaren 8an, errege-dekretu bidez, Zumaiaiko portua "Bigarren Mailako Interes Orokorreko" izendatu zuten. Oso urrats garrantzitsua izan zen hori Zumaia eta zumaiarrentzat. Handik aurrera, ministerioak obra handiak egin zituen portuan. Alde batetik, sarbideko arazoak konpontzen saiatu ziren, eta bestetik, portuaren inguruko merkataritzak eskatzen zituen azpiegiturak eta zerbitzuak sortzen, jarduera hori gero eta handiagoa baitzen.

Portuaren hobekuntzarako lehen proiektu orokorra 1883ko iraila eta 1885eko azaroa bitartean idatzo zien Francisco Lafarga, Gipuzkoako Ingeniariaren buruak. Lafarga jaunaren plangintzak portua gastu handiegirik egin gabe hobetzea zuen helburu. Honako proposamena egin zuen: batetik, ibaiak Hiribilduan zuen ainguratokia aprobetxatzea, eta bestetik, portuko sarrerako kanal hobetzea. Horretarako, bidea zuzendu egin behar zen, eta sakonera handitu, 900 tona arteko ontziek itsasgoran nahiz itsasbeheran erraz zeharka zezaten. Lafarga jaunaren txostenean, honako lan hauek egitea proposatzen zen:

1. Merkataritza kaia.
2. Ibaia bideratzeko dikea.
3. Puntako Aritzako zabaldegia.
4. Barra bideratzeko dikea.
5. Barrako olatu horma.
6. Olatu desbideratzailea.

Zumaia Historia liburutik hartutako pasartea



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Juan Belmonte, 6



Erribera kalea, 20

Zoriona

U

rtero bezala, eta urteroko garai beretsuan, hemen nauzue, zuen hirian. Urtebete pasa da azkenekoz hemen izan nintzenetik, eta egia esateko, ez da ezer aldatu. Ezta azken urteetan ere.

Hona natorrenetik, beti eseri izan naiz oraintxe bertan eserita nagoen txokoan. "Nire txokoa" deitzeagatik ez zarete haserretuko, ezta? Badakit urtean behin bakarrik etortzen naizela, eta urtean behin bakarrik esertzen naizela hemen, baina ez dut beste ezer. Herriz herri ibiltzen naiz, eta herri horietako bakoitzean esertzen naizen txokoak nireak balira bezala hartzen ditut. "Laguntzatxoa mesedez, jateko...elbarria naiz, ez daukat ezer, lagundu mesedez...Eskerrik asko, bai eskerrik asko".

Jende gehienak begiratu ere ez dit egiten, nire ustez beraien kontzientzia txarra ez esnatzeko, baina tartean-tartean badira begiratu ez ezik txanpon batzuk ematen dizkidatenak ere..."Eskerrik asko andrea, eskerrik asko...".

Badakit ez dudala itxura onik, badakit askori beldurra ematen diedala, badakit...."laguntzatxoa mesedez, elbarria

naiz..." , badakit ere bizitzeko eskatu egin behar dudala. Triste da, oso triste da, begiratu ere egiten ez didaten horien bihotza bezain gogorra. Eta ni, gainera, elbarria naiz. Bi hankak nire herrian galdu nituen, mina bat zapalduta. "Jainkoak zaindu zaitzala, gizona, eskerrik asko".

Jendearen borondatearen menpe bizitzea ez da batere atsegina, baina nik ezin dut ezer egin. Nahiago nuke nire txokoaren ondoan dagoen Eroski honetatik beste guztiak irtetzen diren bezala irten, boltsakada bete janarirekin..."eskerrik asko". Oparitxo bat eman dit oraintxe andre batek, hogei zentimo balio duen oparia.

Hementxe nago, urtero bezala, urteroko tokian eta urteroko egunetan. Gabonekin Olentzero, opariak, kontsumismoaren kaleetako argi ilunak etortzeaz gain, ni ere etortzen naiz, jendearen kanpoko zorion faltsuaren barruko orbana. Jendearen kontzientziak astintzen dituen neguko haizea. Hirira etortzen naizen eskalea naiz, bizitzeko mirariak egin behar dituen horietakoa. Zoritarrez, asko gara, baina hirira neu bakarrik etortzen naiz. Aurtengoa bosgarren urtea da, eta jendeak dagoeneko ezagutzen nau. "Begira, eskalea!".



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387



"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





Anonimoa naiz beraientzat. Bat gehiago, munduan dauden eskaleetako bat. Hau gizarte alua hau! Besteentzat ez naiz ezer, kaleko beste edozein elementuren antzekoa naiz. Zakarrontziak, farolak, autoak...eta eskalea. Hori bai, garai honetan denek erruki aurpegiarekin begiratzen didate, "ai gizarajoa...tori hogeiz zentimoko txanpona". Gabonetan denak dira onak, dena da irribarrea...ni izan ezik, ni ez naiz ona, ezta irribarrea ere. Ni errukia ematen duen zerbait naiz, gauza bat, tarteka nire txanora erortzen diren txanponen antzekoa, materia hutsa...

Txanpon batek lurrean bueltaka irauten duen bitarteko zoriona da nirea. Laburra baina zoriona, azken finean. Nire aurretik erruki aurpegiarekin pasatzen direnen zoriona baino zoriontsuagoa, errealagoa. Tripa barreneko zomorroak

mugitzen zaizkit, eta ilusioa pizten zait. Denbora laburrekoa, hori bai. Txanpona lurrean ziplo erori bezain pronto, sabeleko zomorroak ezkutatu egiten dira, ilusioa iluso bihurtzen zait, denbora ikaragarri luzatzen da hurrengo txanpona lurrean biraka hasi arte. Horrelakoa da nire zoriona. Horrelakoa da bizitza. Nirea, esan nahi dut. Txanponak lurrean biraka irauten duen bitarteko zoriona da nirea.

Aitor Manterola Garate




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

dekorazioa
ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAIA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAIA

Usarioa galdu ez dadin...

Tristea izango litzateke usadioa galtzea, eta horregatik saiatzen da Bertso Eskolaren inguruko talde bat santa Ageda inguruan baserrietako buelta egiten. Iaz ere bezpera asteguna egokitu zenez, arratsaldeko buelta bakarrik egin zuten, Zumaiaiko baserri batzuetan. Aurten, ordea, motz geratu nahi ez, eta larunbatean egin zuten egun osoko itzulia, hilaren 7an, Askizun eta Getaria aldean goizean, eta Zumaiaiko baserri batzuetan arratsaldean. Jon Maia eta Baxakarte aritu ziren koplari eta soinu-panderoarekin Aloña eta Irati, Goraneren laguntzarekin Zumaiaiko kaleetan. Datorren urtean Santa Ageda bezperan irteten ahaleginduko omen dira, ostiralean bertan. Ibil daitezela kantari, atez ate, urte askoan.



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853


Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64





Armeniarren genozidioa

JUDUEN SARRASKIAREN aurrean, Adolf Hitlerri galde-tu omen zioten ea zer esango zuen historiak naziei buruz. Hitlerren erantzuna: "Inor gogoratzen al da armeniarren genozidioaz?". Horretaz, hain zuzen, hitz egiten du film honek. Atom Egoyan kanadarrak, baina armeniar leinuko-ak, bere betiko estiloan (pixkanaka osatzen doan puzzlea eginaz, alegia), turkiarrek armeniarrekin zer egin zuten kon-tatu nahi duen zinemagile baten istorioaren aurrean jarriko

gaitu. Baina ez hori bakarrik. Filmak zer eragin duen zine-magilearengan, aktoreengan eta inguruko pertsonengan ere kontatuko digu puzzle liluragarri eta eder bat osatuz: adua-nako enpleguaren eta semearen arteko harremanak, Armeniaraino bere kontura filmatzea joaten den gaztea, tur-kiarrek sarraskirik egin ez zutela uste duen aktorea eta abar. Atom Egoyanek, betiko moduan, bere istorioa aberastuko duen beste istorioaz osatuko du filma eta ikuslearen parte-

hartzearrekin bere filmografia osoan egin duen pelikularik onena lortu du. Bereziki aipatu behar da Egoyan-ek zer garrantzi ematen dion memoria historikoari. Herri batek bere iragana nolakoa izan den jakitea nahitaezkoa du, etorkizuna eraiki nahi badu. Lezio polita besteen menpe bizi garen euskaldu-nontzat.



Ararat (2002) (JBA)

Zuzendaria:
Atom Egoyan
Aktoreak: Charles
Aznavour, Arsinée
Khanjian, Elias Koteas,
Christopher Plummer,
Eric Bogosian

Otzailak 26,
osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean



LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoa z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

ERAKUSKETAK

- Alondagian. Ikustorduak: 6etatik 8etara.
- Urtarrilaren 31tik otsailaren 15era: Antonio Valencia argazkilaria erakusketak, "Animalitos"
 - Martxoaren 11tik 28ra: Shanty Oria margolariaren oleoak.

IKASTAROK

- KONTROL MENTALA: Otsailaren 21etik apirilaren 3ra; 10.30etatik 12.00etara. Izenematea kultur etxean 19a bitartean.
- EMAKUMEENTZAKO TAILERRAK: Etxeko konponketa txikiak. Martxoan. Informazioa, Gizarte Zerbitzuetan (943-862200)
- PHOTOSHOP: oinarritzko ikastaroa, 20 ordu. Martxoaren 1etik 31ra. Matrikula 90 euro; izenematea kultur etxean, otsailaren 25a bitartean.
- INTERNET – k.z.gunean 943-862866
- Oinarritzko ikastaroak: otsailak 9tik 20ra eta 16tik 27ra.
- Mintegi aurreratuak: Messenger otsailak 3 / Outlook otsailak 9.
- DANTZA AFRIKANOAK: Otsailaren 19tik ekainaren 17ra. Ostegunetan 18.30etatik 20.30etara. Matrikula: 40 euro.
- ERLAJAZIO MASAJE IKASTAROA: Astelehenetan 20atik 22tara. Otsailak 16an hasiko gara, apirilak 5 arte. Informazio eta izenemateak SIWA Belardendan.

DEIALDIAK

- MENDI ASTEA: Mendiko ikusentzutekoak. Martxoan (ikusi egitaraua)
- Irteera Kursaalera: otsailaren 28an, Euskadiko Orkesta eta Andramari Abesbatzaren kontzertura. Txartelak salgai kultur etxean otsailaren 20a bitartean.
- Martxoak 17: Bordelera, LUCIA LAKARRAren ikuskizuna ikustera.
- Informazioa kultur etxean (943-861056)
- Inauterietako Mozorro Lehiaketak: otsailaren 21ean, haur eta gaztetxoentzat 7etan eta 16 urtetik gorakoentzako gauerdian.
- Kultur Irteerak: izenematea Turismo bulegoan (943-143396)
- Otsailaren 7an Bilbora: Guggenheim-Arte Eder museoa
- Martxoaren 13an: Biasteri-Ardoaren ibilbidea.
- Gaztetxola: begira programazioa: 21ean inauteri festa, 27an Boloak, 28an zinema...tel: 943-117438

OTSAILA

1. igandea 17.00etan Haur zinema "Canguro Jack"
8. igandea 17.00etan haur zinema "Elf"
12. osteguna 22.15etan zineforum saioa "Open range"
13. ostirala 19.00etan Julene Azpeitia ipuinlehiaketako Sari banaketa

22.00etan Traboules antzerki taldearen "Gure baitako ilargia" helduentzako txotxongilo antzerkia

15. igandea 17.00etan haur zinema "Betizu, izar artean"

20tik 23ra Inauteri Jaiaik Zumaian: txarangen kalejira, haur berbena, Gazte Diskoteka eta Mozorro Lehiaketak. (Ikusi egitaraua)

23. astelehena 15.00etan eta 17.00etan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak "Poxpolin Marisorgin" ikuskizuna.

26. osteguna 22.15etan zineforum saioa "Ararat"

29. igandea 17.00etan haur zinema saioa "El Cid kondaira"

MARTXOA

5. ostirala 22.00etan antzerkia Bederen 1 taldearen "Bakartxo"

6. larunbata 19.00etan foronda kultur etxean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuz, kontzertua: Amaia Aldalur-pianoa, Marixi Sesma-klarineta eta Amaia Garcia-txelo.

7. igandea 17.00etan haur zinema saioa "Looney tunes"

9. asteartea 18.30etan Maria eta Jose aretoan, Getariako musika eskolarekin elkartruke emanaldia.

11. osteguna 22.15etan zineforum saioa "Veronica Guerin"

12. ostirala 18.30etan Getarian, Zumaiko musika eskolako haurren emanaldia.

TOMAS TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurutxaga plaza

943 86 19 16

Emilio Perez
Elektrogailuen salmenta eta konponketa

ADI

Pobixa Itxazaretza, 23
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 143 415
E-mail: adiele@euskainet.net



L
I
B
R
O
S
U
D
E
N
D
A

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569

ARGIA

ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia
- * Endodontia
- * Inplantologia

- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hartz estetika

Inplantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

- Estudio Argazkiak
- Erreportajeak
- Errebelatuak
- Kamarak eta abar
- Markogintza



Profesionalak gara,
etor zaitez!

Ardantzabide

altzariak - aroztokia



**tarimak, atek,
leihoak, pertsianak,
horma armairuak,
aluminiozko armairuak...**

**%20 BEHERAPENAK %15
ERAKUSKETA ALDATZEAGATIK**

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel/faxa: 943 862 532
Tailerra: Santxo auzoa 40

